



uk

63. zenbakia / 2003 ekainak 13



POOL PARTY 2004



23

12:00 AM. 2004/6/23

SAN JUAN SUA
SAIO LIBREAK
SOLSTIZIOA VIDEOWALL HAUR TXAPELKETA
KONTZERTUA **FONY**
LA KANTERA SKATEPARK
ARRIGUNAGA HONDARTZA JAI BRAZILDARRA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Baita Kultur Zuzendaritza Nagusia
Departamento de Cultura
Dirección General de Deportes

Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Pilota partida Sopelanan. Joe Mari Martinez "Bubu".
- 6. PLAZA. Jai eta herri kulturaren alde. Leihatila, Josu Esnaola.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Itsasadarra Erandion.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
- 23. AGENDA.

SAKONEAN

- 24. ALBUMA. Idi-probak Getxon. Asier Mentxaka.
- 26. BERBETAN. Joane Somarriba. Unai Brea.
- 28. ARGAZKIA. 303 kilo. Alejandro de la Rica.
- 30. ERREPORTAJEA. Enpresa kutsatzaileak. U. B.
- 32. FOTOGRAFIA. Ibilaldiko beharginak. Jose Mari Martinez "Bubu".

KULTURA ETA AISIA

- 38. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea eta Getxoko Kultur Etxearen zinema eskaintzaren balantzea.
- 39. MUSIKA. Flyin' freak. Diskoen erreseinak.
- 40. LIBURUAK. Esti Ezkerraren zutabea eta poesiako azken liburuak.
- 41. KOMUNIKAZIOA. Kaleidos aldizkari berria.
- 42. SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.
- 43. ELKARRIZKETA. Ibon Koteron. Unai Brea.

EUSKARAZ

- 44. AKABUKO PUNTE. Maria Begoña Izagirre, Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
- 46. URIBERTSOAN. ALBEkumeak eta gainera Iargi Zuazuaren bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.

AMAITZEKO

- 48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan pintxo bat? Txomin tabernan.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. San Nikolas ikastola, 1971. Bittor Egurrola.
- 54. AITORMENAK. Kirmen Uribe. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Asier Mentxaka (Getxoko kiroldegia)



30 Joane Somarriba



32 Ibilaldia

Euskaldun Unibertsala izendatu berri dute Joane Somarriba txirrundulari ospetsu sopeloztarra. Beragaz egon da berbetan Unai Brea gure kazetaria.



43 Ibon Koteron



24 Albuma



54 Kirmen Uribe



21 Aitor Elorrieta

Udan ere euskarari heldu!

euskara

Udako ikastaro trinkoak
(5 ordukoak)

Cursos intensivos de verano

Ven y ap ntate!

e-mail: j.a.agirre@euskalnet.net



Algortako Etorbidea 104 zbk
48990 Algorta - GETXO
Tlf: 94 460 66 71

HABEK diruz Lagunduta


UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Armezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel
FOTOGRAFIA: Asier Menbeka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Bittor Egurola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algotako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buerbeoa, Jabi Zabala, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarna Lezoan Euskaraz Ekaritza
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz koptatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkartearen Topaguneko partaidea da

**Aldizkari honek Bizarna Lezoan Euskaraz Ekaritzaen dirulaguntza jasotzen du**
Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta

**GETXOKO UDALA**
Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

**Leioako Udala**
Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskaraz Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

**Erandioko Udala**
Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

**Bizkaiko Foru Aldundia**
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

**Fundación Grupo Eroski**
Aldizkari honek Eroski Jaurlaritzaren Kultura Salaren dirulaguntza jaso du

UK
Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK 2095 0121 10 91 02483676
Boluntzarreta

gugeu

UK honetan

Udaberriko akabuko UK duzu hau irakurle, astebete barru uda hasiko da eta. Zerbaki honetan arreta berezia eskaini nahi izan diogu Ander Deuna eta Betiko ikastolek antolatutako duten azken Ibilaldia arrakastatsuari. Aldizkarian jai hau posible egin duten beharginei omenaldi txiki bat egin nahi izan diegu eta horregatik gure argazkilaria hara bialdu genuen eurak erretratzeraz.

Bestetik, kirol asko topatuko duzu UK honetan irakurle. Jeneralean gutxi jorratzen dugun gaia da, akaso UKkideok gure gorputzak sasoiaren jartzen baino denbora konputadorearen parean ematen dugulako. Bada, Joane Somarribagaz berba egitea lortu dugu bizpahiru hilabetez bere atzetik ibili eta gero. Perurena orain dela hogeita bat urte Getxon lortu zuen errekorra jasotzen duen argazki ikusgarria aurkituko duzu aldizkari erdiko orrialdeetan. Herri kirolekin jarraituz Getxon San Isidroak direla-eta egin diren idi probak jaso ditugu gure albumean. Eta pilota ez dugu ahaztu. "Irudia" deitzen dugun bosgarren orrialdeko atalean Titinek eta Goñik Sopelanan jokatu zuten partidaren argazki ederra paratu dugu. Eta gainera Aitor Elorrieta pilotari urduliztarra elkarriketatu dugu.

Kultura ere bada aldizkari hau egiten dugunon bizioetako bat eta aldizkaria aitzakiatzat hartzen dugu sarritan ezagutu nahi dugun jendea ezagutzeko aukera izateko. Oraingoan Kirmen Uribe poeta handiarekin, Ibon Koteron alboka-jole bikainarekin eta Karlos Linazasoro idazlearekin berba egin dugu.

Eta amaitzeko, gogora ezazu San Juan eguna gainean daukagula. San Juan bezperako eguna urteko egunik luzeena da, egun berezia, azaltzen ez dakigun zer hunkigarria duena. Ospatuko baduzu hona hemen abestu behar duzun koplaz zaharra:
San Juan, San Juan / ez daukagu besterik gogoan / artoa eta garia gorde / lapurrak eta sorginak erre / Gure etxean lapurrak ez! / Sorginik bez! / Badagoz bere, erre bitez! 4

UK-ko lantaldea

gutunak


Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu.
Zuon testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxa: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Goizero erosi > **berria**

[irudia]



SOPELANAKO FRONTOIA, 2004-05-28

Pilotaka Ibilaldiaren alde / Pasa zen aurtengo Ibilaldia, eta ondo pasa ere, eguraldia bai eta milaka euskaltzale lagun onak eta adorea lagun izan zuela. Adorea ere, eta kirol grina, ugari erakutsi zuten Ibilaldiaren "beroketa" gisara antolatutako ziren kirol ikuskizunetan parte hartu zuten kirolariak: hemen daukazu Sopelanan maiatzaren 28an Goñi-Lasa eta TitinIII-Elkoro bikoteek jokatu zuten partidua ederreko irudi bat, askotan legez mila berba bainok gehiago dioena. / Argazkia: Bubu

Leihatila

> Josu Esnaola

Zientzia gizonak

Gaur egun, hizkera sexistaren erabilerarekin hain sentikor gabiltzan garaiotan, lagun batek errieta egin dit aurreko batean honako esaldi hau erabili nuelako: *“Inor ez da ausartzen zalantzan jartzen zientzia-gizonak diotena”*.

Ez naiz esaldia androzentrikoa edo sexista den eztabaidatzen hasiko, ezta neure burua zuzitzen ere, baina aipamentxo bat egin nahiko nuke kontu honen inguruan.

Lehenengo eta behin aitortu behar dut ez naizela batere jantzia zientzia kontuetan, baina eskolan ikasitakotik gogoratzen dudana gatik erlijio berri honen sortzaileak gizonetakoak izan direla esaten ausartuko naiz.

Eta oker ez banago Bacon izan zen, hala azaldu digute behintzat, ikerketa zientifiko modernoaren sortzailea, metodo induktibo eta esperimentalaren bitartez.

Nik Darwin aipatu nuen, eta uste dut bi horiek erabat baldintzatu dutela gizartearen bilakaera. Horien lekua bi emakumezkoak bete balute, ez dakit mundua hobea izango litzatekeen, baina seguru ez litzatekeela egun den modukoa izango, ez horixe. 4

IRITZIA

Kulturako, kiroleko eta unibertsitateko kideek bultzatuta, jai eta herri kulturaren aldeko manifestua plazaratu berri da. Hementxe daukazue:

Jai eta herri kulturaren alde

Behean sinatzen dugun gizarte, jai eta kultur eragile, eta herritarrak orohar, honakoa adierazten dugu:

1. Euskal Herrian, eta higadurak higadura, jaiaren zentzua bizirik dago eta agerikoa da herritarrek jaiari erakusten dioten atxikimendua. Egun, oraindik, herri honetako kulturaren oinarriak dauden atabismo zabaleko ospakizunek bere horretan diraute.

Inauterietatik Sanferminetara, Aste Nagusian zehar, jai osasuntsu dabil.

2. Artista, musikari, idazle, konpartsa, peña, blusa, jai batzorde eta herri kulturaren txertatuta dauden gainontzeko eragileen zereginak jai bere zentzu osoan irauaraztea da (erritoak, zentzu iniziatikoa, alaitasuna, elkartasuna, ironia, umorea, kritika, heterodoxia, orgia, katarsia...). Ez ditu protagonismo edo kontrol asmorik mugiarazten, jaiaren zentzu osoaren partaide eta erantzule sentitzen direnean, adierazpen askatasuna bere egin eta indarrean jartzen duten neurrian, kultura sortzen dute, hau da jai bera.

3. Bizitzeko sasoi eta sistema ez da

egokiena jai, eta kultura oro har, gorde eta garatzeko. Haren gainera jausten diren mehatxuak, tamalez, sobera ezagunak dira: zentsura politikoa musikari, idazle, artista, antolakuntza, herritarretako...; merkatukeria, ikuskizuna parte hartzearen kaltetan eta abar. Alde horretatik, nabarmen utzi nahi dugu ezinbestekoa dela herri partaidetza jai eta kultura garatzeko, hala nola instituzioekin antolakuntza partekatzea ere.

“Dei egiten diegu herritarrei jaiaren antolakuntzan, kudeaketan eta jolasean parte hartzera”

4. Ideologia eta pentsaera politiko anitzak ditugulako —edo agian horri esker—, alderdi eta instituzioen gako eta kontrolrik kanpo aritzeak, presiorik gabeko ikuspegia eskaintzen digu. Ikuspuntu horretatik jai bere osotasunean irauarazi eta garatzeko konpromisoa hartzen dugu, kamustu edo alferrik galtzera eraman dezaketek ekimenak saihestuz eta borrokatuz.

5. Dei egiten diegu herritarrei jaiaren antolakuntza, kudeaketa eta jolasean parte hartzeko. Guztion jarduna da jai iraupena eta garapena bultzatzea, galera edo higadura saihestea, eta herri kulturaren adierazpen guztiak errespetatzea.


6. Azkenik, eta azaldutako guztiaren bidez, jaitik abiatuz eta esandako guztia kulturara hedatuz, errotik arbuiauzten ditugu adierazpen askatasunaren aurkako eraso guztiak, jai eta kulturaren jazarpen eta judizializazioa. Bide horretatik abiatzen direnak ez dira duinak jaiaren antolakuntzan ez gizaratean ardurarik hartzeko.

Jai bizia, eta gizarte aske, osasuntsu eta sortzailea nahi izanez gero, ez dago beste aukerarik. 4


Sustatzaileak: Kepa Junkera, Oskorri, Fermin Muguruza, Bingen Mendizabal, Doctor Deseo, Mikel Urdangarin, Evaristo, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Julio Ibarra...

*Sinadura guztiak eta atxekimendua: www.manifestua.org

[lehen]



[orain]



photoshop > Bart Simpson bihurria



Irudiak eta manipulazioa: Gorka Vázquez

Iraganez doa denbora* beti / ERANDIO 1894-2004

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



Argazkiotan, Kirol Portuan ikusi ziren 600 batzuk

ekimena > 600 autoen bilkura Getxon

600aren Lagunen Bizkaiko elkarteak maiatzaren azken zapatuan antolatu zuen Euskal Herriko 600en X. Eguna, Getxon. 80 *seicientosetik* gora ikusi ahal izan ziren Getxoko hainbat ingurutan. Gaur egun auto klasikoa bihurtu da, oraingo autoak 600ak gainetik pasatzeko ere gai dira, baina kotxerik onena daukan gidariak ere zirrara berezia sentitu eta atzera begiratuko du 600 bat albotik pasatzen ikustean. 1957an hasi zen 600a ekoizten Espainian SEAT autogilea, eta apur bat lehenago hasia zen hura Italian merkaturatzen FIAT enpresa. Dante Giacosa ingeniari italiarraren buruak erditu zuen *seicientosa*: asmatzaileak ezin zuen inondik pentsa bere ibilgailuak hainbesterainoko ospea lortuko zuenik, 60. hamarkadako ikono bihurtzeraino. 70.000 pezeta inguru balioko zituen garai hartan: oraingo autoak legez, urteetarako zorra orduan ere. 600 kiloko pisua zeukan, eta bide lauan 90 km/h-ko abiadura har zezakeen. Atzealdean dauka motorea, eta 3,21 m da luze. 40 urte beteak dituen nor ez da 600 baten ibili? m



gure posta elektroniko berria

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

erakusketa > urpeko argazkiak



José Ignacio Figuera argazkilaria santurtziarra



Fotografia erakusketa berria ipini dute Algortako Satistegi tabernan. Oraingoan José Ignacio Figuera urpekaririk Bizkaiko golkoan, Kanariar irletan eta Itsaso Gorrian egindako ia berrogeita hamar argazki eskegi dituzte tabernako hormetan. Arrezifeak, marrazoak, pezioak (itsasuntzi hondoratuak) eta itsaso hondoko paisaiak bildu ditu egileak erakusketa honetarako, guztiak oso teknika onez eginak. José Ignaciok hogeitaz urte daramatza, kamera lagun duela, itsaso azpien irudiak betiko gordetzen, eta urpekaritza irakaslea ere bada. Al Amaitzeko, jakizue argazkiak oso prezio egokian dauzkala salgai. m

kale izendegia > Máximo Agirre



Bilboko alkate eta AEBetako kontsul izateaz gain, negozio-gizon honek lursailak erosi zituen Getxo eta Leioaren arteko mugan, Gobela eta Udondo errekek bideratu zituen, eta padurak lehortzen eta lurra finkatzen hasi zen itsas pinuak eta oteak landatuz. Gainera, Erromoko eta Pinuetako inguruak egokitu zituen, eta Areetako urbanizazioari ekin zion; hain zuzen ere, bere izena dauka auzo horretan kale batek. Maximo Agirrek lursail gehiago erosten jarraitu zuen Erandion zein Leioan, eta 1860an Baños de Lamiako izeneko herri berri bat sortzea proposatu zuen; azkenean proiektua ez zen burutu, baina bere heriotzaren ostean (1863an zendu zen), Lamiakoko aldaketen benetako bultzatzailea izan zen elkarte sortu zuten. Hori guztia dela-eta ipini zioten auzo horretako kale bati Maximo Agirre izena. m



BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO
Kantxa Kizol moda



350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

Euskaraz udaletxean

Euskararen Erabilera Plana abian jarri gura du **udaletxe barruan** Getxoko udalak; **alde danakaz**, sindikatuakaz eta oposizioagaz adostu ostean onartuko ei da **2007ra arte** iraungo duen egitasmo hau

Euskararen Erabilerearen Normalizaziorako Plangintza orokorraren alde bat da udaletxe barrura begira osatu den Euskararen Erabilera Plan hau. Getxoko udaletxeko alor eta sail denei, sindikatuari eta oposizioari alderdiei aurkeztu eta euren danakaz adostu ondoren onartuko ei da Plana. Behin onartu eta gero, 2007ra arte iraungo du.



Elhuyar enpresaren laguntzaz egin da udaletxeko euskararen erabilerearen azterketa

rioztatuko datuak baikor egotekoak dira”.

Datuak eta helburuak

Eusko Jaurlaritzaren Arautegi Orokorrak eskatzen du gutxieneko hizkuntza aldetiko baldintzak langileen %33k bete beharko

«Udalak kanpoko harremanetarako eginiko idazkien %88 euskaraz edo ele bietan egin ditu»

lituzketela, eta Getxoko udaleko langileen %45ek betetzen du hori. Bestetik, langileen %32k gainditu du dagokion hizkuntz eskakizuna, baina kopuru honek %60ra egiten du gora 45 urtetik gorakoak eta bitarteko langileak (interinoak) kontuan hartzen ez badira (haiek ez dute eskakizuna bete be-

har). Kanpoko harremanak: euskaraz edo ele bietan egiten dira ahozkoen %32, eta idatzizkoen %88. Helburuak direla eta, ondoak finkatu dituzte, besteak beste: langile euskaldunen artean euskaraz jardutea, ez dakitenei ikasteko aukera ematea, kanpoko harremanetan euskarari lehentasuna ematea, eta informatika programak zein teknologia berriak euskaraz jartzea. m

DATU BATZUK

- **Langileen %32** dauka egiaztatuta ezarritako hizkuntz eskakizuna.
- **Kanpoko harremanetarako** idazkien %88 euskara edo elebitan egin dira.
- **Errotuluen %57** euskaraz edo elebitan daude, kanpokoak zein udaletxeok.
- **Euskararen Erabilera Plana** 2007ra arte garatuko da.

Pou anaiakaz Madagaskarrera Jabi Baraiazarra eta Miguel del Tio getxoztarrak Pou anaien trebezien argazkilari eta bidailagun



Argazkian, Miguel del Tio eta Jabi Baraiazarra

Pou anaia eskalatzailak 3 urte iraungo duen “Zazpi horma, Zazpi kontinente” proiektuari ekin zioten iaz. Eneko eta Iker Pou gasteiztarrek eskalada libre estiloan 7 kontinenteetako bakoitzeko hormarik zailenak igotzeko asmoa dute (Ipar Amerika, Hego Amerika, Asia, Afrika, Australia, Europa eta Antartida).

Horietako bi iaz erdietsi zituzten: Kaliforniako Yosemite-n *El Niño* bidea, eta Picu Urriellu (Naranco, Europa) *Zumbeltz* bidea. Afrikakoa dute orain helmuga bi anaiek, eta euren batera Jabi Baraiazarra eta Miguel del Tio getxoztarrak joango dira. Poutarrak erretiratzea eta bideoak ekoiztea da bi hauen egite-

koa, bidaia gozatzeaz gain.

Pakistan erdibidean geratu da

Hasierako egitasmoa Pakistanera joatean, La Torre del Trango-ra, *Eternal Flame* bidea egitera, baina hurrengo baterako utzi dute. Ekain amaieran Madagaskar hegoaldera doaz azkenean, Andringitrara mendigunera. Pakistaneko egitasmoa erakargarriagoa zen Baraiazarra eta Del Tio-rentzat, baina oraingoagaz ere oso pozik daude, ez zuten espero-eta aukera hau izatea, eta zera dute amets: “Zazpi horma Zazpi kontinente Poutarrekin batera egitea”. Eta ametsak batzuetan egia bihurtzen ei dira. m

ITXAS ARGIAKO BESTE POSTONTZI BAT, LAPURDIN

Orain dela 4 urte Getxoko Itxas Argia mendi taldeak Euskal Herriko lurralde bakoitzeko mendi tontor batean postontzi bat jartzeko egitasmoari ekin zion. 2000. urtean Nafarroako Ezkaurre (2050m) mendian jarri zuten postontzia: Getxoko Axerrotaren irudiaren forma daukan gutunontzia. Hurrengo bi urteetan Bizkaia (Alluitz) eta Gipuzkoako mendiek hartu zuten lekukoa. Itxas Argiako kideek adierazi dutenez, “Postontziok, norbera mendian galduz gero, non dagoen jakiteko balio dute, eta bestetik, erabilgarriak dira mendi taldearen helbideagaz uzten den gutunaren bitartez mendi taldeak bata besteagaz harremanean jartzeko ere”. Aurten Lapurdiren txanda da, eta Baigura (897m) mendia aukeratu dute.

C.D. GETXORENTZAKO DIRU-LAGUNTZA

Getxo Futbol taldeari 16.000 euroko diru-laguntza emango dio Getxoko udalak belar naturaleko zelaia egoera onean jarri eta zaintzeko. Iñaki Zarrakoa alkateak azaldu duen legez, “belar naturaleko zelaia zaindu nahi dugu, etorkizunean Getxo 2. A mailan jokatzen ikusteko esperantza daukagulako, maila horretan belar naturaleko zelaia baldintza bat da eta”. Hala ere, Gobelako belar artifizialeko zelaia amaitzen denean, Getxo taldeak Bolue 3 zelaia nahi beste erabili ahal izango du, belar artifizialekoa berau ere.

EUSKARAREN ERABILERA PLANA BIDERATUTA

Getxoko udalak euskararen Erabilera plana onartu zuen 2002ko irailean: 2007ra arte iraungo du eta lan esparru bi dauka, bata udal barruko euskararen erabilera plana, eta bestea herri mailako euskara biziberritzeko plana. Lehenengo esparruan, udalekoan, euskararen erabilerearen inguruko azterketa egin du Elhuyar enpresak, eta betebeharrak helburuak zehaztu dira; Tokiko Gobernu Batzarrean onartzea da hurrengo urratsa.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurri.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Pool party skaterren jaia San Juan bezperan

Ekainaren 23ko gau liluragarria, San Juan bezpera, skaterren topagune bihurtuko da urtero legez. Arrigunagako hondartzan dagoen La Kantera Skate parkeak Poolparty jaialdi itzela hartuko du. 2000. urtetik antolatzen dute jaialdi hau skaterrek, baina aurtengo honek kutsu berezia edukiko du, La Kanteran egin diren zaharberitze lanen ondoren parkearen inaugurazioa egingo delako. Skateak, artea, ikusentzunezko ikuskizunak, bideo emanaldiak, musika ekitaldiak eta abar prestatu dituzte; eta jai brasildarra ospatuko da egun osoan.

Informazioa: www.skatepoolparty.com



BAPIRUEKO UDALEKU IREKIAK ALGORTAN

Bizarra Lepoan euskara elkarteak udaleku irekiak antolatu ditu ekain eta uztaileko. Bapiruke egitasmoaren barruan prestatu diren udalekuok Algortan egingo dira hiru txandatan: lehenengo txanda ekainaren 21 eta 25 bitartekoa izango da, 2.a ekainaren 28tik uztailearen 9ra, eta hirugarrena uztailearen 12-23 artean. 5 eta 12 urte bitarteko ume eskaldunentzako udaleku ireki hauek goizeko 09:00etatik 13:30etara izango dira abian, eta martitzen eta osegunetarako egun osoko irteerak antolatzen asmoa dago. Izena emateko epea ekainaren 11ra artekoa da. Lehen txanda parte hartu gura dutenek 37 euro ordaindu beharko dituzte bazkideak badira, bestela 50 euro, eta 2. eta 3. txandakoek 75 euro edo 100 euro.

Harremanetarako: 94 491 43 57

Antoine Bastero > Txontxongilo antzerkigilea

"Egin nuen lehenengo antzezpenari begiratu banio, egun hartan bertan utziko nuen lanbidea, baina 24 urte daroadaz"



Antoine Bastero Getxoko Antzezkiuna Giñol taldeko kidea

Antoine Bastero getxoztarra txontxongilo antzezlea da: orain gutxira arte Myriam Rodetegaz batera antzeztan zituen txontxongilo lanak, eta orain anaia Carlosegaz dihardu. UNIMA Euskal Herria-ko (Txontxongiloaren Nazioarteko Batasuna) presidente da, GUABEko idazkari (Getxoko Ume Antzerkia Bultzatzeko Elkarte), eta Antzenkizuna taldeko kidea.

—Nolatan dituzu txontxongiloak lanbide?
—Zori hutsez. Aktore legez antzerki talde batean nengoen, jendeak utzi egin zuen taldea arrazoi bat edo bestegatik, eta pertsona bi geratu ginen. *Eta orain zer?* pentsatu genuen. Bi bakarrik ginenez txontxongilo lan bat prestatzea bururatu zitzaigun. Lehen ikuskizuna Plentziako Geltoki auzoko jaietan egin genuen, gogoan daukat: 1980ko uztailearen 10a. Hasi ginen antzeztan eta bat-batean gizon bat agertu zen eta ozen esan: "txokolatada prest dago!" eta bat-batean denek korrika aldegin zuten: gu, aho zabalik. Beste kontratu bi genituelako, bestela egun horretan bertan utzi egingo genuen lanbidea. Baina 24 urte daroaguz antzeztan eta oso pozik. Festetan jaiotzen ginen, eta pentsa ezin dituzun lekuetan antzeztu dugu. Orain gauzak aldatu egin dira: herri

gehienek antzezteko leku egokiak dauzkate.
—Txontxongilo piloa edukiko duzu etxean.
—Ez hainbeste, 100 bat. Gehienak antzeztan ditut oraindik. Lau ikuskizun dauzkagu: Pinotxo (Txontxongilo Egunean antzeztuko dutena), Euskal Ipuinak, Euskal Herriko Itsasoa, eta Josetxu (dagoeneko ez dute egiten, erderaz). Eta antzeztokiko oihaltan hemengo irudiak egiten ditugu, adibidez Portu Zaharra.
—Txontxongiloak umeentzako al dira?
—Jende askok uste du hori, baina antolatzaileek ere. Eta nagusientzako txontxongilo ikuskizunak badaude, gutxi, baina badira. Ume zein

«Nik 2.100 txontxongilo baitz batu egin dut postura»

nagusi, liluratu egiten dira, txontxongiloa eskuekin hartu, eta mugitzen duzunean, magia! Bizitza ematen diozu. Magia da, txontxongiloen espiritua da, arima txontxongiloarena da eta ez aktorearena.

—Errekorra gaindituko al da?
—Nik 2.100 baitz batu egin dut postura. Asmoa da plaza jendez beteta ikustea, bakoitzak eskuan txontxongilo bat daramala, horrekin lortuko dugu magia. m

Txontxongilo eguna Munduko errekorra gainditu guran



Ekainaren 19an ospatuko da Getxon Txontxongilo eguna

Bigarren urtez jarraian UNIMA Euskal Herria elkarteak Txontxongilo Eguna Getxon egingo dela iragarri du. Udalerriko Kultur Etxearen laguntzagaz, UNIMAK goiz eta arratsalderako ekintzak antolatu ditu ekainaren 19rako. Hala ere, Getxon egingo den azkenengo aldia izango da.

Areerako Geltoki plazan elkartuko dira txontxongiloak, txontxongilo zaleak eta profesionalak. Egun horretarako kanta bat sortu du Algortan bizi den Izaskun

Palaciok. Besteak beste, 7 txontxongilo antzezpen izango dira ikusgai egun horretan, txontxongiloak egiteko 4 lantegi, eta munduko errekorra ontzeko ekitaldia ere egingo da. Nola? Azken honetarako jendeari laguntzeko deia egiten diote antolatzaileek, bakoitzak txontxongilo bat eskuan eramateko: sekula mundu osoan batu den txontxongilo kopuru handiena biltzea da helburua, eta 463 txontxongilo baino gehiago batu beharko dira. m

XI. GETXOTAR DANTZA EGUNA, EKAINAREN 19AN

Ekainaren 19 eta 20an izango da XI. Getxotar Dantza Eguna. Udalerriko hainbat dantza eskolotako ikasleek urte osoan prestatutako koreografiak ikusi ahal izango dira Getxo Antzokiko oholiza gainean. Gonbidapena eskuratzea (Kultur Etxean galdetu) beharrezkoa izango da 4 eta 20 urte bitarteko ikasle hauek prestatutako lanak ikusteko. Hilaren 19an 19:30ean da hitzordua, eta domekan 12:00etan eta 19:30ean.

XABIER PAYA IPAR URIBEKO TXAPELDUN

Badakizkigu Bizkaiko Eskualdeetako Bertsolari Txapelketako irabazleen izenak: Xabier Paia dugu Ipar Uribeko txapelkun. Beste eskualdeetako 6 txapelkunak batera, eta azkenengo Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalera heldu ziren 11 bertsolariakaz, hurrengo Bizkaiko Bertsolari Txapelketan parte hartzeko aukera dauka Xabier Paia.

JAZZALDIRAKO SARRERAK

Salgai daude Jazzaldirako sarrera txartelak, 12-25 euroko salneurrian. Ekainaren 30tik uztailearen 4ra arte egingo den jaialdiko kontzertu nagusietarako txartel hauek, besteak beste, Villamonteko Kultur Etxean, Telekan eta 94 431 92 80 telefonoan eros daitezke.

Xabier Paya eta Igor Elortza bertsotan



OSABIDE? HORTZ? KLINIKA
Arantza Etxebarria
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI
Bidebarri 27, behe eskualdea ALGORTA 94 94 430 76

Jose Unzurrunzaga Astigarraga
HORTZ? KLINIKA
Tel. & Faxe: 94 460 06 21
Andikoetxe 24, behe ezkerria
ALGORTA

Suak leioaztarren jai giroa berotuko du

Ekainaren 23an hasi eta hilaren 25era arte luzatuko dira jaiak. Hasiera emango dien pregoia **Andrak** elkarteko kideek irakuriko dute

San Juan egunak, urteko egunik luze- enak, udako solstizioaren hasiera iragartzen du. Ohitura zaharrei eta euskal mitologiari helduz gero, hori dugu urtean zehar etxe barruan zintzilikatuta sorgin eta izpiritu gaiztoak uxatzen dituen San Juan lore-sorta erretzeko unea; besteak beste, lizarraz, arto-landareaz, gari-buruaz, arrosaz eta garoaz osatzen da sorta hau. Leioaztarrek, gainera, herriko jaiak ospatzen dituzte egun horietan... eta ez edozelako festak.

Aurtengo urte honetan adin guztietara begira antolatu da egitaraua. Ostegunetik igandera arte mota guztietako jardueraz gozatzeko aukera edukiko du herrira hurbiltzen den guztiak. Koadrilen arteko txapelketak, musika, umorea, kirolak, dantzak... eta aparteko giroa izango dira nagusi egun hauetan. Jaien lehen eguna ekainaren 23a izan arren, aurreko astean zehar zenbait ekitaldi egongo dira giroa berotzen joateko.

Pregoa

Andrak Elkarteak irakuriko du aurtengo pregoia. Elkarteko lehendakari Ana Cespedesen esanetan, *"ilusio handiz hartu dute albiste"*. Elkarte honen lan esparrua emakumearen askapena eta aisialdia da, eta baita, *"emakumeen arteko harremanak sus-*



Argazkiotan, iazko jaietako giroa

tatzea eta elkartzeko aukera eskaintzea". 1989an sortu zen elkarte honek 2.000 bazkide dauzka, eta gehienak Leioakoak izan arren, *"beste herrietakoak ere etorri obi dina"*. Irteerak, lategiak, dantzak... azken batean norbere buruaren osotasunerako jarduerak antolatzen dituzte. Urte honetako jaietan, beraz, aipamen berezia emakume guztiari.

EGITARAUA (laburturik)

- Ekainak 12, larunbata**
19:00. Leioako IV. Jota Txapelketa Kultur Etxeko auditorioan.
- Ekainak 19, Larunbata**
11:00. Kirol eskolen erakustaldia Sakonetan.
16:30. Txirrindularitza. Euskadiko Txapelketaren lasterketa bulebarrean.
22:00. Leioako Pop-Rock Lehiaketako talde irabazlearen kontzertua Barandiaran Ikastetxean.
23:00. Kontzertua Barandiaran ikastetxean: GUARANA eta LOS CUCAS.
- Ekainak 23, Asteazkena**
20:00. Txupinazoa eta pregoia irakurtzea ANDRAK elkartearen eskutik eta koadrilen jaitsiera.
20:30. Haurrentzako herri kirolak Euskal Etxeen Plazan
23:00. San Juan sua piztuko da udaletxean.
- Ekainak 24, Osteguna**
12:00. Koadrilen arteko Umora Olinpiada Osasun Zentroan
19:30. Eskupilota profesionala:
•Errandonea II - Mendia
•Larraia - Gorriti
•Ariznabarreta - Armendariz



Txosnetako jai batzordea >

"Jaiak herriak antolatu behar ditu"



Argazkian, jai batzordeko kideak batzar batean

Jaiak denen partehartzeaz egin daitezten eskatzeko antolatzen dituzte jarduerak txosna batzordekoek. Udaletxeak eskaintzen duen jai ereduarekin ez daude ados. Izan ere, batzordeko kide Naroak esaten duenez, *"jaiak herriak antolatu behar ditu, ez kultur koordinatzaile batek"*. Ez dituzte, ordea, herriko jaiak ordezkatu nahi. Horregatik, *"ekintzak txosna inguruetan egiten ditugu eta ez herri osoan zehar"*.

Batzordea ideia honekin ados agertu diren hainbat erakundek osatzen dute, eta denen artean diru iturriak, antolaketa, koordinazioa eta programazioa erabakitzen dute. Aurtengo egun osoa ekintzez beteko dute, izan ere *"jaiak gauera kontzertuak baino zerbait gehiago izatea nahi dugu"*. Jardueraren bat azpimarratzearen, ekainaren

23an egingo den Akelarrea aipatu digute. *"Iaz sekuulako arrakasta eduki zuen, eta gainera aurtengo su ikuskizuna ere izango da"*. Larunbatean (ekainak 26) ospatzen den bazkari herrikoiak ere harrera ona omen dauka. Egun berean, Naziotasun Eguna aldarrikatuko dute, eta bertan Euskal Nazioa Agiria (ENA) ateratzeko aukera egongo da.

Txosna Batzordea herriko erakunde hauek osatzen dute: AEK, Kraska Gazte Konpartsa, Ikasle Abertzaleak, Lila Gorriak, Betiko Ikastola, Presoen Lagunak, Leioa Abian, Gazteak eta Gaztetxea. m

Programa (besteak beste)

- Ekainak 23:** ENE BADA, Akelarrea eta su ikuskizuna. **Ekainak 24:** Olinpiadak eta poteoa, gazte afaria, O GARBANZO NEGRO, erromeria. **Ekainak 25:** Bazkaria, herri Kirolak, goitibehera lasterketa. **Ekainak 26:** Bertsolariak, erromeria...

PLATER-TIRO
ETA EHIZARAKO
KIROL-ELKARTEA



TABERNA-KARTUTXO DENDA

Posta kutxa 33 LEIOA
Tel: 94 633 81 59

uRondo
Estankoa

jai zoriontsuak leioztar guztioi!

Sabino Arana 67
T: 94 464 92 33 - LEIOA

KURKUDI
HERRIKO TABERNA

Bokata goxo-goxoak
eta beroak



Jaietan ere presoak
etxera

Sabino Arana, 82 behe LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa



Gure selekzioen alde

Talde polita dabil lanean Astrabuduan **euskal selekzioen eguna** ospatzeko. Jarrita daukate data, eta arazorik ez badago, **uztailaren 3an** euskal selekzioen kolorez beteko dituzte auzoko kaleak

—Zelan otu zitzaizuen euskal selekzioen aldeko eguna ospatzea?

—Lagunen arteko gauza izan zen. Astrabuduan euskal kultura eta kirola sustatzeko oso ekitaldi gutxi antolatzen dira urtean. Beraz, zer edo zer antolatzea bururatu zitzaigun. Euskal selekzioena aitzakia ederra eta garrantzi handiko aldarrikapena iruditzen zaigu.

—Eta hasi zineten lanean...

—Bai lehenengo urratsa Astrabuduko kultura eta kirol taldeekin hitz egitea izan zen. Horrela Atxazpe Mendi taldea, Ipar Haize txistu taldea, Trabudu Dantza Taldea, Astrabuduko Kick-Boxing taldea eta Askobegi Athletic Peña ados jarri eta proposamena lantzen hasi ginen. Izan ere Astrabuduko gazteok bildu gara ideia lantzeko.

—Euskal Selektzioaren alde Esait dugu erreferente...

—Bai, ideia sortu ahala beraiekin kontaktuan jarri ginen eta pozik gaude erantzunarekin. Jakin badakigu horrelakorik antolatzea zail xamarra izan daitekela eta jendearen erantzuna ezin dugula ziurtatu. Baina hala eta guztiz ere, gu ilusioz eta gozoz gabiltza ahalegina egiteko.

—Horrelako jai batean kanpoko jendea etortzea ere espero duzue?

—Zalantza barik, baina guk, Astrabuduko jendeaz gain, bereziki dei egin nahi diogu Uribe Kosta eta Txorierriko jendeari.

—Jai egitarauan zer proposatuko diguzue?

—Uztailaren 3ko goizaldean hasiko gara, kalejira alai eta zaratsatu batez. Fanfariak,



Argazkian, Astrabuduan euskal selekzioak bultzatzeko sortu den taldeko lagunak

Zanpazarrak, txistulariak, eta trikitilariak eduki ditugu lagun egun osoan. Goiz erdian edo, jaiaren aurkezpena egingo dugu Trabudu Plazan, eta bertan Esait-

«Ekimen honen bultzatzaileek 400 lagunentzako sukalkia prestatu nahi dute»

eko kide eta kirolarien laguntza edukiko dugu. Aurkezpena osatuz, bertsolariak eta geroxeago euskal dantzen ekitaldia izango dugu ere.

Arratsaldean Kick-Boxing erakusketa

eta bost orduz haur jolasak ere edukiko ditugu.

—Herri bazkaria ere ez da faltako...

—Bai 400 pertsonarentzako sukalkia egin gura dugu. Bazkarirako txartelak Trabudu eta Primera Linea tabernetan ipiniko ditugu alde aurretik salgai.

—Eta gastua betetzeko diru iturriak?

—Beno, Udalaren laguntza ekonomikoa eta teknikoa ere badaukagu. Udalak gustura hartu zuen gure proposamena, eta laguntza eskaini du. Beste alde batetik, ohiko balibideak erabili beharko ditugu eta inguruko enpresengana jotzen gabiltza jaiaren gastu osoari aurre egiteko. m

Giro ezin hobea

Erandio igeri eskolako ekimenetan



Udalak antolatzen dituen ikastaroetan 160 hurrek hartzen dute parte

Erandio igeri eskola ikasturteko azken ekimenak burutzen dabil hilabete honetan: ikasleen arteko jolasak eta Bizkaiko eskolarteko lehiaketa hain zuzen ere. Erandio Udalak antolatzen dituen igeriketa ikastaroetan 160ren bat neska-mutilek parte hartzen dute hilero. Horiarik 30ren batek Erandio Igeri Taldea osatzen dute. Igeri taldeko kide askok lehiaketetan parte hartzen dute; 5 federatu eta beste 12 bat eskolen arteko ligan. Gainontzekoek ezin dezakete parte hartu lehiaketetan zortzi urte baino txikiagoak direlako.

Maiatzaren 22 eta 23ko asteburuan Biz-

kaiko eskolarteko txapelketak izan ziren Altzagako igerilekuan. Bertan emaitza onak lortu zituzten Erandio igerilariak. Hots, Erandio igerilari bi Bizkaiko ordezkarien artean egongo dira Euskal Herriko Txapelketan. Zigor Gomez 200 bular estiloko proban eta Oihane Alonso 200 estiloak eta 100 eta 200 estiloak probetan. Izan ere, Erandio igeriketa Taldeak Bizkaiko Udako Txapelketan parte hartuko du ekainaren 19 eta 20an.

Hala ere, dena ez da lehiaketa eta igeri egiten ikastea. Urteko ikastaroak amaitzeko, jolasean ibiltzen dira haur guztiak igerilekuetako uretan murgiltzen. m

ERANDIOKO LEHEN FILM LABURREN ZINEMALDIA HILAREN BUKAERAN

Ekainaren 21etik 26ra Josu Murueta kultur etxean egingo den Erandio igeri film laburren zinemaldirako 60 bat film aurkeztu dituzte, dokumentalak eta umorezkoak. Josu Murueta kultur etxeko areto nagusian ikusi ahal izango dira lehiaketara aurkeztutako lanak ekainaren 21etik 25era arratsaldeko 19.30etatik aurrera. Ekainaren 26an, larunbata, amaiera ekitaldia eta sari banaketa izango dira.

Zinemaldiaren antolaketa lanetarako Lanbide Heziketako Institutuaren laguntza eduki du Udalak, izan ere, ikus-entzunezkoen alorreko ikasketak eskaintzen dituen Euskadiko ikastetxerik onenetakoa baita Erandio. Epaimahaikoen artean, besteak beste, Aiora Sedano aktorea erandioztarra izango da.

ERANDION 898 LANGABETU ZEUDEN ERREGISTRATUTA IAZKO URTE AMAIERAN

Behargintzak eskuratutako datuen arabera, Erandio igeri biziaren aktiboa 9.871 pertsonak osatzen du, eta langabezi tasa %9,10ekoa da (2003ko abenduaren 31ko datuak). Langabetuak 445 gizonezko eta 453 andrazko ziren, baina aipagarria da 25 eta 44 urte bitartean andrazko langabetuen kopurua nabarmen handiagoa dela gizonezkoena baino, eta langabeturik gehienek, %69,15, ez dutela bigarren mailako ikasketarik. Langabezi tasari dagokionez, Erandio 26. lekua betetzen du Bizkaiko 111 udalerrien artean.

“EUSKARA SENCILLOAREN MANIFIESTOA” LANA EKAINAREN 17AN BEKOA IKASTETXEAN

Euskara Zerbitzuak aurtengo urterako prestatu dituen kultur ekitaldiekin jarraituz, datorren ostegunean, ekainak 17, *Euskara sencilloaren manifestoa* antzetzuko dute Mikel Martinezek eta Patxo Telleriak. Ordubeteko komedia jostagarria Bekoa ikastetxeko aretoan emango dute arratsaldeko 20:00etan. Euskara Zerbitzuak antolatzen dituen ekitaldiarako sarrerak doan dira, baina gonbidapenak eskuratu behar dira Kultura Sailean.

GOIZEAN

Gozoki eta prentsa, gutxi deni
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1 T: 430 22 13
GETXO

Telletexe 13 T: 460 02 88
ALGORTA

ETXETIKO? ELEKTROTRESNEN? KONPON

Lacofris S.L. SERVICIO

Y MARKA GUZTIAK
Y 24 ORDUTAN ERAMTZU-
NA
Y 3 HILABETEKO GARAN-
TIA
Y 25 URTEZ ZURE ZERBITU

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

01 SOPELNET S.L.




Jokoak sarean ¥
Txapelketak ¥ Internet ¥
Txat ¥ E-mail ¥ Lanak ¥

ordenagailuen salmenta
zerbitzu teknikoak
kontsumitzeko gaiak, zur

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

94 676 00 62- Fax: 94 676

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[sopelana]jaietan]

Hemen daude Sanpedroak

Jai giroa hiru festagunetan banatuko da



Musika, txapelketak, jolasak, antzerkia, dantza... denetarik eta denentzako

Ekainaren 23an hasi eta uztailearen 3ra arte jaietan murgilduta ibiliko dira sope- loztarrak. San Pedro jaietako giroaren zaporea dasta daiteke orain ere, eta lo orduak pilatzen hastea hobe luke festazale- ak, gerokoak hobeto gozatzeko, denontza- ko hamaika ekintza, ikuskizun, hitzaldi, jolas eta kontzertu daude-eta iragarrita.

Hall Kulturalak eta hainbat herritar eta elkarte prestaturako ekitaldiak hiru gunetan banatzen dira: udaletxe aurreko plaza, txozna gunea eta Zipiriñe ikastola. Azken gunea honetan umeei eta gaztetxoei begira antolatutako ekintza eta ikuskizun- ak izango dira: jolas parkea, apar edo bits jaia, pailazoak, diskoteka... Bestalde, mota askotako txapelketa eta lehiaketak izango dira San Pedroetan: petanka, briska karta jokoa, urteroko makailao txapelketa, arku- jaurtiketa, txirrindulari lasterketa, pilota partidu profesionalak, herri kirol erakus- taldia... Eta musika eskaintza oparoa ere iragarri dute: erromeria doinuak, rock tal- deak, reggae soinuak, mariatxiak, folk musika... Aipatzekoak dira txozna gunean eskainiko diren kontzertuak eta *Arterror*

Noise and Film Fest rock eta film laburren jaialdia. Antzerki eta dantza ikuskizunak ere ez dira faltako: besteak beste, Organik taldearen ES3IN ikusizuna izango da. m



«Musika eskaintza oparoa dago iragarrita: folk, reggae, mariatxiak, rock...»



[sopelana]jaietan]

Egitaraua

EKAINAK 25 BARIKUA

- ▶ Koadrila jaitsiera. Gazte Leku fanfariagaz. 19:00
- ▶ Bizkaiko herri arteko pala txapelketako finala. Pilotalekuan. 19:00
- ▶ Pregoia irakurtzea. Udaletxe plaza. 19:30
- ▶ Umeentzako ekitaldia. *Compañía en la Lona*-ren eskutik. Udaletxe inguruetan. 20:00
- ▶ Koadrilen arteko Petanka txapelketa. Udaletxe landan. 20:00
- ▶ Gazteentzako diskoteka. Zipiriñe. 22:00
- ▶ Kukuma folk taldearen kontzertua. Txoznetan. 23:00
- ▶ Erromeria Irailerako 6 taldeagaz. Udaletxe plaza. 23:00
- ▶ Suzko zezena. Zipiriñe eskolan. 00:00

EKAINAK 26 ZAPATUA

- ▶ Arku-jaurtiketa Lehiaketa. Sopelana D'Arco elkarteak antolatuta. Urko-ko landetan.
- ▶ Txu-txu trenak. 11:00-14:00
- ▶ Umeentzako jolas parkea. Zipiriñe eskolan. 11:00-13:30 eta 18:00-20:30
- ▶ Bitsa umeentzat. Zipiriñe eskolan. 12:30
- ▶ Nagusien omenezko bazkaria. Nagusien Etxean. 14:00
- ▶ Txirrindulari lasterketa (Kadeteak). Ugeraga Txirrindulari elkartearen eskutik. 16:30
- ▶ Los Titiñeros de Sebastopol pailazoak. Zipiriñe eskolan. 19:30
- ▶ Bodyboard Gaur. Txoznetan. 21:30
- ▶ Gazteentzako diskoteka. Zipiriñe. 22:00
- ▶ Su artifizialak. Fraidemenditik. Zaragozako pirotekniaren eskutik. 00:00
- ▶ Suzko zezena. Udaletxe plaza. 00:30
- ▶ Kontzertuak. Dantza Alai (22:00) eta Koxkor (01:30) taldeak erromeria. Udaletxe plaza. Ayama reggae taldea. Txoznetan. 01:30

EKAINAK 27 DOMEKA

- ▶ Zirri-Marra elkartearen margo erakusketa. Udaletxe inguruan. Egun osoan zehar.
- ▶ XXXIV. Makailao lehiaketa. Udaletxe ondoko zelaian. 10:00
- ▶ Txu-txu trenak. 11:00-14:00 eta 17:00-19:30
- ▶ Umeentzako jolas parkea. Zipiriñe eskolan. 11:00-13:30 eta 18:00-20:30
- ▶ Bitsa umeentzat. Zipiriñe eskolan. 12:30
- ▶ Herri Kirolak. Udaletxe Plaza. 13:00
- ▶ Briska Txapelketako finala. Hall-Kulturalako Eginkizun Aretoan. 18:00
- ▶ Gorriti eta bere animalien show-a. Udaletxe ondoko landan. 18:30
- ▶ ES3IN ikuskizuna. Organik taldearen eskutik. Udaletxe Plaza. 20:00.

EKAINAK 28 ASTELEHENA

- ▶ Umeentzako jolas parkea. Zipiriñe eskolan. 11:00-13:30 eta 18:00-20:30
- ▶ Kuadrilen arteko Ginkana. Udaletxe ondoko zelaian. 19:00
- ▶ Arterror Noise and Film Fest. Kontzertuak eta film laburrak. Txoznetan. 21:30
- ▶ Cleopatira ikuskizuna. Chicas de Alejandria-ren eskutik. Udaletxe plaza. 22:00

EKAINAK 29 MARTITZENA, SANPEDRO EGUNA

- ▶ Meza nagusia. 11:00
- ▶ Uribe-Bazterra musika bandaren kontzertua. Udaletxe plaza. 12:30
- ▶ Txorizoa danontzako. Udaletxe alboan. 13:00
- ▶ Mariatxiak Los Reyes taldeagaz. Udaletxe plaza. 21:00

OHARRA: Leku faltagatik ez ditugu ekitaldi guztiak sartu hemen.

fotoxabier argazkiak



- ezkontza erreportajeak
- estudio eta argazki industrialak
- errebelatuak ordu betean
- kopia digitalak edozein euskarri ekarrita (CD, diskete, Zip...)

T&F: 94 676 03 09
E-mail: saitia@terra.es
Doctor Landa, z/b SOPELA

Instalazio elektrikoak Electro LAIA

Larrialdi Zerbitzua 24 ordu
670 415 732

Konpromisorik gabeko aurrekontuak / komunitate, lantegien...
mantenimendua / exbeizitza, lonja, pabiloien erreformak /
bonba hidraulikoak / telefonia, ahots eta datuen sareak



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email: sopela@ikastola.net

BEROGAILU ETA ITUR-



Sarrikobaso 15

LAIKAK Taberna

San Pedro jai zoriontsuak
sopeloztar guztioi!!!

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

MULTIABENTURA IRTEERA HILAREN 22AN


Multiabentura irteera antolatu du Berangoko Kultur Etxeak La Arboledara. Hiru eta hamalau urte bitarteko ume eta gazteei zuzendua dago txangoa, eta hilaren 22an, domeka, egingo da. Tirolina, piraguak, arku-jaurtiketa eta beste kirol estilo asko egin ahal izango dira bertan egun osoan zehar. Berangotik goizeko 09:00etan irtengo da autobusa eta gaueko 20:00ak aldera itzuli. Joan gura duen berangoztarrak 13 euro ordaindu beharko ditu, eta gainontzekoek 15 euro. Izena emateko epea ekainaren 18an amaituko da.

UMEENTZAKO EUSKAL IPUINAK ENTZUNGAI

Ekainean zehar gure garaiko euskal literaturako idazleen ipuinak entzungai edukiko dituzte ume berangoztarrek. Izan ere, hil honetan barikuero Eginkizun Aretoran idazle ezagunen ipuinak irakurriko dizkiete begiraleek bertaratutako haurrei: Bernardo Atxagaren *"Bi letter jaso nituen denbora gutxian"* entzungai izan da dagoeneko, ekainaren 11an Anjel Lertxundiren *"Kaxkajo bahituaren kasua"* izango da goxagai, eta hilaren 25ean Patxi Zubizarretaren *"Enara, zer berri?"*.



IV. Txakolin Eguna hilaren 20an: Berangoko uzta dastagai



Argazkian, Esteban Irtzagorria txakolingile berangoztarra bere mahastian

Ekainaren 20rako antolatu du Txakolingileen Laguntzaileak elkarteak Berangoko IV. Txakolin Eguna. 16 txakolineru berangoztarren aurtengo uzta izango da dastagai Sabino Arana kalean jarriko diren 14 etxolatxoetan. Eguerdiko 12etan hasi eta 15:30 arte, edo txakolin botila guztiak amaitu arte, herriko txakolina dastatzeko aukera edukiko du bertaratzen denak, lukainka, buzkantza, talo, gaztai edota euskal opilagaz batera.

Berangoko txakolinaz goxatu gura duenak 3,5 euroko kopa bat erosi beharko du, egun horretarako bereziki sortuko da edalontzia eta 600 bat jarriko dira sargai. Txakolingileen Laguntzaileak elkar-

ak dauka eguna antolatzeko ardura, Berangoko udalaren laguntzagaz.

Berangoko Txakolina

Txakongileen Laguntzaileak elkarteko kide Iñaki Arestik azaldu digunez: *"asmoa herriari herriko txakolina probatzen ematea da, eta era berean, bertako txakolinari eta txakolineruei laguntzea"*. Aurtengo uzta *majua* dela aurreratu digu Arestik, *"Berangoko txakolina urtero-urtero hobetzen doa, eta guk hori gura dugu"*. Bestalde, etorkizuneko helburua azaldu zigun: *"Berangoko txakolineruak ez daude Bizkaiko Txakolina-ren barruan, eta bide horretarantz enaman gura ditugu"*. m

Aitor Elorrieta > pilotaria

"Igez Irujoren kontra irabazi nuen eta..."



Aitor Elorrieta Urdulizko aurrelaria

Sopelanako Eskupelota taldeak antolatu zuen Neumaticos Bizkaia Goodyear I txapelketako txapela jantzi zuen maiatzean Aitor Elorrieta aurrelari urduliztarrek. Zale mailako 32 pilotari onenek jardun zuten lau t'erdiko txapelketan eta 28 urteko urduliztarra izan zen garaile.

Urdulizko Eskupelota eskolan 8 urte-gaz sartu zenetik ez ditu babak eskuetatik kendu, eta 10 urte daroaz zale mailan. Julian Retegiri begira hasi da pilotari legez, eta oraindik fresko dauzka gogoan Martinez de Irujoren kontra jokaturako bi partidak, *"urte bete egin du aldaketa itzela, izeg nire aurka bili zen jokatzeko, nik ere ez dut sinisten, bi bider jokatu dut bere aurka eta inoiz ez dit irabazi, eta begira non dagoen bera eta non nagoen ni, holakoa da bizimodua"*. Profesionaltara heltzeko lagunak

behar direla diosku, eta berak ez duela inoiz mota horretako lagunik izan.

30 txapela etxean

30 bat txapela edukiko ditu etxean, baina profesionaltara igotzeko orain ilusiorik ez daukala aitortu digu, zale mailan pozik dagoela-eta, goi-goian. *"Zale mailan Euskadin goian nago, Espainiako txapelketa jokatzeko nabil final erdietan, federacionesetan klubetan artekoan ere azpitxapeladun geratu naiz Campeonato Españan urte bitan, hori bada zerbait, ez da esatea zale mailan nabil eta kasualidadez irabazi dot Goodyear txapelketa hau"*. Orain 5 urte-edo, Bizkaiko txapeladun izan zen, eta orduan Bizkaiko Federaziotik zaharregia zela-eta jolasteari uzteko esan ei zioten. Jolasten jarraitzen du, eta txapelak irabazten darrai. m

KALEKO ZINEMA IZANGO DA URDULIZEN UDAN

Zinemaz kalean gozatzeko aukera izango da Urdulizen uda partean. Izan ere, Urdulizko Kultur Etxeak kalean antolatuko du zinema, ekain eta uztail bitartean. Lehendakari Agirre plazan egokituko duten kaleko aretoan bospasei film ikusi ahal izango dira. Martitzeneko eskainiko dituzte filmak, ekainaren 22an hasi eta uztailaren 27ra arte. Emanaldi guztiak 10:30ean hasiko dira, eta film hauek egongo dira ikusgai: *"Papa Canguro"*, *"Looney Tunes, de nuevo en accion"*, *"El Cid, la leyenda"* (euskaraz), *"Super-agente Cody Banks"*, eta *"Buscando a Nemo"*. Beraz, martitzeneko ume eta gaztetxoek hitzordua daukate zinemagaz Urdulizen.

cianoplan s.a.
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15


BASTARTENA
URDULIZ
Teléfono: 946 761 128

Taberna Bern
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

krimea

Negubide 13
Tel. 94 463 61 82

AREETA



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

V. RAID GAZTEA, EKAINAREN 20AN

Ekainaren 20an V. Raid Gaztea antolatu du Algortako Scout taldeak. Piragua, bizikleta, lasterka egitea, arku-jaurtiketa eta orientazio ibilaldia moduko probak gaintitu beharko dituzte parte hartzen duten bikoteek. Lehiaketan sartzeko, aurretik 20 euro ordaindu beharko ditu bikote bakoitzak. Hitzordua 08:30ean jarri dute Gorlizeko hondartzan.

Harremanetarako: 615 70 07 69

GORLIZKO III. AEROBIC MARATOIA, HILAREN 19AN

Hirugarren urtez jarraian Aerobic maratokia egingo da Gorlizen. Ekainaren 19an jarri dute zita Iberrebarri plazan arratsaldeko 18:00etan. Aurreko urteetako arrakasta ikusita, aurtengo honetan ere goliztarrek aerobic egiten arratsalde osoa iraungo dutela ez dago zalantzan jartzarik.

UME PIRAGUISTEN VI. ELKARRETARATZEA

Ume piraguiisten VI. elkarretaratzea egingo da Butroe ibaian ekainaren 26an, zapatuan. Bederatzi eta hamahiru urte bitarteko haurrak hartuko ditu Butroe ibaiak bere uretan egun horretan, eta irudi bitxia osatuko dute hamaika koloretako piraguek. Barrika Piragua Taldeak antolatzen du topaketa eta goizeko 11:00etarako iragarri dute hitzordua.

BARRIKA

San Juan jaiak ospatuko dira ekainaren 18tik 24ra



San Juan jaiak heldu dira eta egitarau beroberoa dakarte. San Juan eguna aurten eguena izanik, barrikarrek aurreko barikutik ekingo diote jaiari. Ekainaren 18an txistularien kalejirak bitutuko du giroa, koadrilen jaisierak emango die kaleei kolorea, sardinadak asetuiko ditu sabelak eta disko festak jarriko ditu oinak dantzatzeko. Zapatuan goizez herri jolasak egongo dira, arratsaldean umeen tortilla txapelketa eta jolas parkea, eta gaur egun Fjord taldearen kontzertua eta disko festa. Domeka goizean San Juan IV. Nekazari azoka eta XXVIII. Sukalki txapelketa egingo dira, arratsaldean txirrindulari lasterketa eta antzerkia. San Juan bezperako suaren xarmak argituko du ekainaren 23a, Gaitzerdi taldearen ikuskizunak jarriko du txinparta, eta txokolatadak goxotasuna. San Juan eguna mezak izartuko du, herri kirolek eta txistulariek alaitu, herri bazkariak asetu, eta gero, datorren urtera arte!

ren kontzertua eta disko festa. Domeka goizean San Juan IV. Nekazari azoka eta XXVIII. Sukalki txapelketa egingo dira, arratsaldean txirrindulari lasterketa eta antzerkia. San Juan bezperako suaren xarmak argituko du ekainaren 23a, Gaitzerdi taldearen ikuskizunak jarriko du txinparta, eta txokolatadak goxotasuna. San Juan eguna mezak izartuko du, herri kirolek eta txistulariek alaitu, herri bazkariak asetu, eta gero, datorren urtera arte!

Egitaraua

- Ekainak 18, barikua Koadrilen XIII. jaisiera (20:00) eta Sardinada (21:00)
• Ekainak 19, zapatua Umeentzako tortilla txapelketa (17:00), Disko festa, Fjord-en kontzertua (00:00)
• Ekainak 20, domeka Nekazaritza Azoka (09:30), Hortzmuga taldearen Klaketa ikuskizuna (19:30)
• Ekainak 23, eguaztena San Juan sua, Gaitzerdi antzerki taldearen ikuskizuna (22:30)
• Ekainak 24, eguena Herri kirolak (13:00), Herri Bazkaria (14:00)

Ekainak 13 - 30

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

GETXO

Antezaleak-eko ikasleen lanak. Algortako Kultur Etxeko Areto Nagusia. Ekainaren 14tik 25era.

Lantegien erakusketa. Kultur Etxeak antolatutako lantegietan egindako sorkuntza-lanen erakusketa. Algorta, Erromo eta Areetako aretoetan. Ekainaren 11ra arte.

ECCA Erromo erakusketa. Erromoko erakustaretoa. Ekainaren 14tik 18ra arte.

Adimen Urriko Pertsonen aldeko Uribe Kostako Elkartearen erakusketa. Erromoko erakustaretoa. Ekainaren 21tik 25ra.

URDULIZ

Jaietako Kartelak. Andra Mari jaietarako kartel lehiaketako lanak. Kultur Etxea. Ekainaren 15etik 30era.

PLENTZIA

Victor Cuadro. Margolanak. Goñi Portal kulturala. Ekainaren 1etik 15era.

Araldiren margolanak. Goñi Portal kulturala. Ekainak 16-30.

BERANGO

Lantegietako sormenak. Kultur Etxeko lantegietako ikasleen sormenak. Berangoetako Kultur Etxea. Altzarien zaharberritzea. Ekainaren 14tik 20ra. Egurra lantzeko lantegien erakusketa. Ekainaren 21etik 27ra.

GORLIZ

Abizioaren mendea. Erakustaretoa. Ekainaren 16tik 27ra.

Erick Marlop-en arte erakusketa. Erakustaretoa. Ekainaren 28tik uztailaren 5era arte.

SOPELANA

Zirri-Marra elkartearen margolanak. Udaletxe inguruan. Ekainak 26 eta 27, egun osoan zehar.

ANTZERKIA

BARRIKA

Klaketa ikuskizuna. Hortzmuga taldearen eskutik. San Juan jaiaren barruan. Ekainak 20, domeka. 19:30. Gaitzerdi antzerki taldearen ikuskizuna. San Juan jaiaren barruan. Ekainak 23, eguaztena. 22:30.



Urtero lege, Balkoitik Balkoira bertso-saioa Portu Zaharrean

Bertsolaritza

Arzallus eta Paia, balkoitik balkoira

Urtero lege, Balkoitik Balkoira bertso saioa egingo da Portu Zaharreko Etxetxu plazan (Algorta) ekainaren 25ean, gaueko 22:00etan. Algortako Bertsolari Eskolaren eta Euskara Zerbitzuaren eskutik Amets Arzallus eta Fredi Paia bertsolari gazteek egingo dute bertsotan. Garai batean Euskal Herrian egiten zen moduan, aintzinako ohiturari jarraituz, aurrez aurre izango dira, balkoitik balkoira abestuko dituzte bertsoak, Ametsek eta Fredik. Oholtza gainetik jaitsi arren, goratik entzungo ditugu beraz.

Non: Portu Zaharreko Etxetxu plazan (Algorta) • Noiz: Ekainak 25

GORLIZ

Teatro trapero del Rio. Iberrebarri plaza. Ekainak 12, zapatua. 19:30.

ZINEMA

PLENTZIA

Ponte en mi lugar. Gazte Zinema. Goñi Portala. Ekainak 12, zapatua. 18:00. Tarta de fresa. Haur zinema. Goñi Portala. Ekainak 19, zapatua. 18:00.

Pegado a ti. Gazte zinema. Goñi Portala. Ekainak 26, zapatua. 18:00.

Titus. Helduentzako zinema. Goñi Portala. Ekainak 11, barikua. 22:00. El Ultimo Samurai. Helduentzako zinema. Goñi Portala. Ekainak 18, barikua. 22:00.

URDULIZ

Papa Canguro. Haur zinema. Lehendakari Agirre Plaza. Ekainak 22, martitzena. 10:30. Looney Tunes, de nuevo en accion. Haur Zinema. Lehendakari

MUSIKA

GETXO

XVI. Nazioarteko Blues jaialdia. Victor Aneiros eta Eric Sardinak, ekainaren 11an. Bobby Rush & His Big Band, ekainaren 12an. Deborah Coleman, ekainaren 13an. Algortako Portu Zaharra. 21:30. Sarrerak doan.

XXVIII. Nazioarteko Jazzaldia. Kontzertu nagusiak: Milo Suchomel Quartet eta Bill Bruford's Earthworks, ekainak 30. Robin Verheyen Trio eta Brussels Jazz Orchestra eta Bert Joris, uztailak 1. Jazz Sixtet of Rostov's Conservatoire eta Chano Dominguez, uztailak 2. Listen eta McCoy Tyner, uztailak 3. Barbara Hendricks & Magnus Lindgren Quartet, uztailak 4. Biotz Alai plazan. 21:30. Sarrerak salgai.

BARRIKA

Fjord. San Juan jaiaren barruan. Ekainak 19, zapatua. 00:00.

BESTEAK

LEIOA

Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoak. Leioako Musika Eskolaren Auditorioa. Ekainak 12, zapatua. 17:00. Sarrera doan.

URDULIZ

Magia ikuskizuna. Antsonekoa plazan. Ekainak 18, barikua. 18:00.

BERANGO

Araba Euskaraz, Bastidara irteera. Izena emateko epea ekainaren 18ra arte. 8/10 euro.

BARRIKA

San Juan IV. Nekazaritza azoka. Ekainak 20, domeka. 09:30.

aldai TAPIZTEGIA DEKORAZIOA ERAKUSKETA ETA TAIERRAK Basagoiti etorbidea 32 Tf: 460 90 31 48990 ALGORTA

VASA 20th ANIVERSARIO URTEURRENA KLIMATIZAZIOA INGENIARITZA INSTALAZIOA MANTENIMENDUA Otxandategi tar Simon 114 48640 Berango, Bizkaia tel. 94 668 15 51 Taxa. 94 66829 92 e-mail: vasa@euskalnet.net


namaika bide Kafe Antzokia Bilbo Kafe Antzokia Ondarroa Ondarroako Arrigorri itsas ostata Algara konpartsa Zaparrada Gaztegunea Olgetan Umegunea Elkartearen zerbitzu, ikastaro eta tailerrak Bakaikuko etxea Bilbo Hiria irratia 96.0 Fm Zenbat Gara aldizkaria Gara argitaletxea zenbat gara elkarte



Idi probak Getxon

Azkeneko UKn San Isidrotako erretratu batzuk ekarri genduzen: meza nagosi, yantzak, egarri kentzeko barratxu... baia ezin gara lasai lotu honek yaiek hainbeste urtetan auki dauden beste festeju bet erautsi barik: idi probak. Aspaldirik antolatuten da idik eta gizonak batera eiten dauden kirol hau Andra Mariko probalekun, udalerriko bakarran. Bai idik eta bai zelatasune gero ta gitxiaure doaz, baia pentsa lei ondingarren urte batzuten bere ondo bizirik seguko daule honek kirolak gure arten.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Azken Euskaldun Unibertsala Uribe Kostakoa da, sopoloztarra hain zuzen. Joane Somarriba dauka izena, 31 urte dauzka, lau ahizpatan bigarena da, eta ez du aurkezpen handiegirik behar. Nahikotxo kostata lortu dugu elkarizketa hau egitea –horra gure Tourmaleta–, Somarribak berbaldiko azken erantzunean agertutako arrazoiengatik hain justu, baina azkenean beraren etxean egon ginen, goizez, entrenatzen joan baino lehenago (bera, ez gu). Andrazkoen kirolaz jardun genuen, txirindularien bizimoduaz, Tourraz, eta, zer esanik ez, etorkizunaz. Izan ere, Joane Somarribak aurtan emango dio amaiera arrakastaz jositako ibilbideari. Aldatzik gogorrenak, beharbada, errepidetik kanpo eduki dituen ibilbidea, bide batez esateko. Batzuetan nahiz besteetan gora, ondo ibili da gure Joane. Zorionak berari.

Joane Somarriba

Euskaldun mundiala

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zelan hartu duzu Euskaldun Unibertsal izendapena?

—Notizia itzela izan zen, gehiegi da niretzat. Uste nuen sari hau oso jende garrantzitsuarentzat zela. Idazleak eta halakoak, beste maila batekoak. Esan zidatenean poz handia izan nuen; benetan uste nuen gehiegi zela niretzat, nik neure lana baino ez dut egin. Kirol hau betidanik gustatu zait eta daukadan dena eman dut munduko leku guztietan. Saria nire atzean dagoen jende guztiarentzat ere bada: teknikariak, mekanikoak, masajistak... Eta txirindularitzaren familia osoarentzat. Nire izenean hartuko dut, baina jende askorena da.

—Tourra irabazteak baino poz handiago eman dizu?

—Desberdina da. Tour batean egunero zaude presio itzelarekin, izugarritzko ahalgina egiten, eta amaitzen duzunean poz handia hartzen duzu. Hau desberdina da. Konpetiziotik kanpo hotzago ikusten dira gauzak. Konturatu egin naiz hemen, Euskal Herrian, garaipen guztiek garrantzia daukatela. Niretzat ordain-sari ona izan da.

—Erretiroaz berba egiten hasi zara ...

—Bai, urte hau azkena izango da. Zortzi urterekin hasi nintzen konpetizioan, eta gogoia daukat bizimodua aldatzeko. Gure bizimodua, kirolari guztiona, nahiko gogorra da: ordutegiak, entrenatu beharra... eta gure kirolean beharrezkoa da %100ean egotea. Urte batzuetarako ondo dago, baina gero burua nekatu egiten da. Entrenamenduak goiz eta arrat-

“Zortzi urterekin hasi nintzen, eta gogoia daukat bizimoduz aldatzeko”

saldez, asko zaindu zer jaten duzun, zenbat lo egiten duzun.... Urtero-urtero neure helburuak eduki ditut eta erraza izan da hor sartuta egotea. Baina orain, Atenasko Joko Olinpikoetan egon ondoren, uzteko asmoa daukat.

—Eta zer egingo duzu?

—Ama izateko gogoia daukat. 32 urterekin utziko dut eta badaukatu edadea ama izateko; ez dut gerorako utzi nahi. Bestetik, beharbada masaje-kontsultaleku bat ipiniko dut gero, hori daukat buruan. Ea zer gertatzen den.

—Zer ikasi zenuen?

—Hagin-protesia. Baina ez daukat asmo-

rik horretan lan egiteko.

—Eta kirolari lotuta egotea bai?

—Bai. Nire taldean jende gazte asko dago, ikasteko gogotsu, eta polita izango litzateke niretzat horiekin lotuta jarraitzea.


—Zelakoa da zure egun normal bat?

—Orain? 8:00etan-edo altxatu, gosalduta eta entrenatzen joan bost orduz. Etorri, bazkaldu, atsedean apur bat hartu eta gaur

esaterako –ez beti–, berriro entrenatzen joan, beste ordu bi edo. Heldu, afaldu eta ohera.

—Zazpi edo zortzi ordu, beraz, egunero entrenatzen, beste batzuk ordenagailu aurrean edo lantegian dauden bezala...

—Tira, gaur zazpi izango dira gutxi gora behera, baina egunero ez ditut zazpi egiten, e? Atzo hiru egin nituen. Edozelan, arratsaldean ezin naiz hondartzara joan, orain udan, ezta zutik egon denbora luzean; guretzat oso txarra da, hankak lodi jartzen dira eta kontrakturak agertzen dira. Etzanda edo jesarrita egon behar. Gogorra da. Uda da niretzat txar-



Joane Somarriba bere etxean, Gatikan

rena, jendea ikusten dudanean hondartzara joaten eta herri guztietan jaiak hasten direnean.

—Eta zapatu eta domeketan ere lehen esandako plana daukazu?

—Bai, egunero-egunero.

—Txirindularitza oso gogorra dela badakigu. Are gogorragoa da andrazkoena, bitarteko faltagatik, publizitate faltagatik...?

—Bai. Nire taldean askok ez daukate ez soldata bat ez ezer ere. Hori da txarrena. Lan egin behar dute goizean, arratsaldean entrenatu...

—Eta zelan liteke zurea bezalako palmaresagaz, azken Tourrera ia-ia ezin joan izana talderik ez edukitearren?

—Hori da gogorrena. Egundako espon-

sor barik, bueltak leku batetik bestera, bila. Eta azkenean pensatu nuen: hau bai gogorra, hainbeste egin dut kirol honen alde, eta ez dut hainbeste eskatzen: taldea baino ez. Uste nuen oraindik aukera neu-

“Lehen Tourra 18 urterekin-edo egin nuen, eta oso txarto amaitu nuen”

kala Tourra irabazteko [hala izan zen gero] eta neure burua handik kanpo ikustea gogorra izan zen. Momentu txarrak pasa ditut.

—Hala ere, ematen du, kalean behintzat (instituzioetan ez dakit), andrazkoen kirolaren ospea oro har gora doala, zuri esker, Athleticeri esker...

—Nik kalean bero handia sumatzen dut jendearengan. Pozgarririk handiena hori da niretzat, jendeak ematen didan beroa, irabaztea baino gehiago.

—Baina horrek gero badu islarik dirulaguntzetan eta abar?

—(Barre) Ni neu ezin kexatu. Bizkaiko Aldundia sartu da gure taldean, eta laguntza handia daukagu. Baina nik aurtentzako dut eta ea zer gertatzen den nire taldekideekin. Niretzat gogorra izango litzateke eurak kanpoan geratzea, taldeak ez jarraitzea.

—Zein izan zen zure lehen bizikleta?

—Torrot bat. Horrelako aukerak luzearekin. Lau urterekin eduki nuen eta ahizpa txikia eramaten nuen atzean, beti gora eta behera. Orduak eta orduak ematen nituen.

—Noiz pentsatu zenuen lehenengoz: Tourra irabaz dezaket?

—Irabazi arte ez. Lehen Tourra 18 urterekin-edo egin nuen, eta oso txarto amaitu nuen egunero, Alpeetan-eta ordu pare bat galduz. Etapa bakoitza amaitzean, pentsatzen nuen: ez naiz hona itzuliko berriro, hau ez da normala, ze gogorra den... Lehenengoarengandik sei ordura amaitu nuen beharbada! (Barre). Baina amaitu egin nuen.

—Zelan moldatzen zara ospeagaz, elkarriketakaz, omenaldiakaz...?

—Nire bizimodua oso lasaia da, nire

munduan, familiarekin, entrenamenduekin... Sarritan, ez daukat denborarik. Dei asko daukat leku askotara joateko. Denari baietz esango banio, bizikleta garajeen egongo litzateke, ikutu barik. Askotan ezetz esan behar da. Aukeratu egin behar da, eta zaila izaten da. ^m



FADURA (GETXO), 1985

303 kilo

Alejandro de la Rica

Fadurako frontoian, 1985ean, lortu zuen Ináki Perurena harrijasotzaile leitzararak garaiko errekorra gainditzea, 303 kiloko harri astuna leporatu zuen eta. Gaur egun errekorra 327 kiloan dago.

Europar Batasunak onartutako arau bat dela-eta, Espainiar estatuko erkidego autonomiko guztiek euren lurraldeko enpresa kutsatzaileen berri eman behar dute. Enpresa horietako batzuk, gero, EPER zerrendan sartu dira (Isurketa Kutsagarrien Europar Zerrendaren ingelesezko siglak dira EPER). Horretarako, Europar Batasunak erabakitako 51 produktuetatik gutxienez bat isuri behar dute, Europar Batasunak berak ezarritako kopurutik gora hain justu. Eusko Jaurlaritzak azpimarratu gura duenez, EPER zerrendan egoteak ez du esan gura legea urratzen denik, informazioa ematea da eta helburua. Gure eskualdean, guztira, horietako zazpi enpresa daude.

EPER zerrenda

Kutsaduraren berri

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

EPER zerrenda Interneten

Guztira, EAE osoko 119 enpresa daude EPER zerrendan. Horietatik, 50 Bizkaian daude, 47 Gipuzkoan eta 22 Araban (erditik gora Gasteizen). Uribe Kostako zazpi enpresetatik, hiru Leioan daude, bi Erandion eta bana Berangon, Getxon eta Lemoizen. Zerrendan (www.eper-euskadi.net webgunean dago ikusgai), horien izenak, helbideak, eginkizunak eta EBK ezarritako mugatik gora isurtzen edo botatzen dituzten produktuak zeintzuk diren ikus daiteke.



Antza, Euskal Autonomia Erkidegoa izan da estatu osoan bere enpresa guztien informazioa eman duen bakarra. Beraz, eskura dauka, nahi duenak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari dagokien EPER zerrenda begiratzea. Izan ere, edozein hiritarrek egin dezake, zerrenda publikoa da eta (ikus alboko koadroa).

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak ondo azpimarratu gura duenez, EPER zerrendan ageri diren enpresak ez dabilta legearen aurka. Edo behintzat, zerrendan agertzea ez da horren adierazlea. Saileko bozeroale batek esan digunez, *“informazioa ematea da helburua; edonork, Inter-*

egongo direla baizik.

Europar Batasunak 2007. urtean ezarri gura ditu, behin-betiko, kutsaduraren mugak, beti ere Eusko Jaurlaritzak esandakoaren arabera. Orduan, enpresa bakoitza jarduerabaimen bat eskuratzera behartuko lukete. Sustantzia kutsagarrien zerrenda zabaltzeko asmoa daukate gainera.

Getxoko udal zabortegia, zerrendan

Getxoko Udaletxea EPER Zerrendan dagoen enpresetako bat da. Zergatia Larrañazubi inguruko zabortegia da: zaborra deskonposatzean sortutako metano gasa atmosferara isurtzen da. Hain zuzen,

«EPER zerrendan agertzeak ez du adierazten legea urratzen denik»

neten sartuta, jakin egin dezake zenbat berun –adibide bat da– botatzen den atmosferara bere inguruan”.

Europar Batasunak 51 sustantziaren arabera egin du EPER zerrenda: metanoa, amoniakoa, zinka, kloruroak... Sustantzia horietako bakoitzerako kopuru bat ezarri da, eta hortik gora isurtzen dutenak agertu behar dira EPERen. Horrek, hala ere, ez du arriskua adierazten, Ingurumen Sailak dioenez, enpresa horiek kontrolpean

772.000 kilogramo metano isurtzen dira urtean (EBK ezarritako “muga” 100.000 kilogramokoa da urte baterako).

Josu Ateka Getxoko Udaletxeko ingurumen teknikariak azaldu digunez, *“dagoeneko estaltze-lanak egiten hasita gaudu zabortegian, gasek ihes egin ez dezaten. Gas hori modu kontrolatuan batu eta ondoren erre egingo da”.* Edozelan, EAEko beste askoren aldean Getxoko zabortegia txikia dela aldarrikatzen du



Getxoko udal zabortegia

Udaletxeko langileak. *“Beraz, ez dugu metano gehiegirik botatzen”.*

Antza, Getxoko zabortegiak daukan arazoa 70eko hamarkadako zabortegi guztiek daukate, are 80ko batzuk ere. Zelangura, *“metanoak ez du kutsatzen eta usain txarrik ere ez du ematen”*, esan digu Atekek.

tasuna arriskuan ipintzen ez badu behintzat, publikoa izan behar du”, diosku. Bestetik, *“arautegi gogorra”* deritzo Atekek Europar Batasunekoari. *“eta aldi berean, onuragarria; beharrezkoa zen halako zeezer”*, gehitu du.

EPER zerrendan dauden eskualdeko

«Uribe Kostako zazpi enpresa daude EPER zerrendaren barruan»

“Bestelakoa da hark egindako kaltea: karbono dioxidoagaz batera, ozono geruza desegiten duten sustantziatiko bat da”, azaldu digu Getxoko teknikariak.

EPER zerrenda publikoa izateagaz bat dator Ateka: *“Nire ustez, ingurumenari dagokion informazio guztiak, segur-*

beste enpresa batzuk ere berba egiten ahalegindu gara, baina Getxoko Udaletxeak baino ez digu erantzun. Gainerako enpen izenik ez dugu aipatuko, baina bai botatzen dituzten sustantzia kutsagarriak. Hemen eskuman dauzkazue zenbaki guztiak. m

Sustantzia kutsagarriak gurean

Ingurumen Saileko bozeroaleak esan bezala, EPER zerrendari esker edonork dauka orain bere inguruan botatzen diren sustantzia kutsagarri kopuruak ezagutzeko aukera. Horixe egin dugu guk, bada: zerrendara jo eta bertan ageri diren Uribe Kostako zazpi enpresek zer isurtzen duten begiratu dugu. Hona emaitzak (kopuru guztiak urteko kilogramoetan emanda daude; lehenengoa enpresak botatzen duena da, eta bigarrena EBK ezarritako “muga” balioa). Getxoko enpresaren datuak falta dira noski, dagoeneko emanda dauzkagu eta.

LEIOA (hiru enpresa)

A enpresa

Karbono organikoa 178.34750.000
Konposatu organohalogenatuak ..1.2591.000

B enpresa

Karbono organikoa ..59.76050.000
Fosforoa19.6985.000

C enpresa

Nitrogeno oxidoak 105.827 ..100.000

ERANDIO (enpresa bi)

A enpresa

Artsenikoa20,65
Kloruroak2.955.000 2.000.000

B enpresa

Kloroa12.84210.000

BERANGO (enpresa bat)

A enpresa


Kobrea181100
Zinka.....290200

LEMOIZ (enpresa bat)

A enpresa

Metanoa201.000 ..100.000





Ibilaldiko beharginak


Danon ahotan dabil ospatu berri den Ibilaldiaren arrakasta. Batzuek historikotzat jo dute, izan ere 130.000 euskaltzale bildu ziren Betiko eta Ander Deuna ikastolek antolatutako jai handi honetara. Baina hau guztia ez da posible ehundaka beharginen lana barik. Guk euretariko batzuen erretratuak ekarri nahi izan ditugu orrialdeotara. Betiko ikastolaren aldeko beste behargin nekaezin bat Kepa Butron zuzendari ohi eta irakaslea izan da.

Kepa Ibilaldiaren bezperan hil zen. Irudiok beraren omenez doaz.

Argazkiak: Jose Mari Martínez "Bubu"







zineeskola

Oskar Fernández

Zinema generoak (1)

Zutabetxo honetan behin baino gehiagotan hitz egin dugu zinematik literaturarekin duen loturaz, izan ere sarri harira datorren gaia da hau: gaur egun edonork daki literatura eta zinema, biak ere, istorioak kontatzeko baliabideak direla. Beraz, zinematik literaturak bezala, zenbait genero ditu: belikoa, zientzia-fikzioa, komedia, historikoa, musikazkoa, poliziakoa, beldurrezkoa, drama, abentura, western, gudaren aurkakoa, melodrama edo animaziozkoa, besteak beste. Genero hauek zabalduz joan dira zinemaren historian zehar, arrakasta gehiagoz edo gutxiagoz. Pentsa genezake generoak lotuta egon beharko liritekeela ekoizpen artistikoarekin, zuzendarien ahalmen artistikoarekin, alegia, baina benetan gertatzen dena askoz ilunagoa da: Zinemaren atzetik oso enpresa boteretsuak eta interes politiko handiak daude. Generoak ezkutu-ko interes politiko, ekonomiko eta sozialen arabera landu dira. Zinemaren askatasun adierazpenak behin baino gehiagotan ibili behar izan du zapalduta eta baztertuta: proiektu batzuk debekatzen zituzten garatzen hasi baino lehenago, edo zuzen zakarontzira joaten ziren. Filmek, behin amaituta, izugarriko aldaketak jasan behar izan zituzten: amaiera aldatu, sekuentzia osoak kendu, edo eszenak birmoldatu behar. Aipatutako interesek eta zentsura bortitzak eragin zuzena izan zuten hainbat eta hainbat hamarkadatan zinemagintzan, eta ondorioz generoaren garapenaren askatasuna bide zehatz batzuetatik bideratu zuten. Gaur egun, zoritxarrez, zinemagintzaren ekoizpena “zuzen” (“correcto”) deituko eremu estu eta lazgarri horretan kokatu behar da. 4

Pedro Mari Santos zuzendaria

Plentzia, Sopelana, Gorliz eta Getxoko irudiak **Agujeros en el cielo** filman

Pedro Mari Santos zuzendari bilbotarrak bere lehenengo film luzea pantailaratu du urte hasieran, *Agujeros en el cielo*. Zine-Klubeko zinema denboraldiari film honek eman zion amaiera eta zuzendaria bera gonbidatu zuten forumera.

Grabazioa lau astetan egin zen Bilbo, Getxo, Sopelana, Plentzia, Gorliz eta Mundaka inguruetan. Pedro Mari Santosen iritziz, *“Zinemak ez ditu bat ere, inolaz ere, aprobetxatu Bizkaiko parajeak, eta argazki arduraduna zein kanpoko ikusle asko liluratuta gelditu dira paisaiakaz”*. Zu-

«Zinemak ez ditu bat ere, inolaz ere, aprobetxatu Bizkaiko parajeak»

zendaria, grabazio lekuak, musikagilea, zuzendarien ahalmen artistikoarekin, aktore gehienak... Euskal Herrikoak dira baina Santosek azaldu legez, *“filmaren gaia ez da hemengoa bakarrik, urrun ikusita ere hurbileko egoerak antzematen dira”*. Gizarte harremanak ditu ardatz filmak, bakardadea delarik hari gidaria. Izenburuaren inguruak Santosek diosku: *“Elenak, eta Pablok ere, bizitzari begiratzeko heldubako begirada dauka, zeruna begiratzen du eta handik goitik zorteak irribarre noiz egin zain dago, zortea aldatzeko ezer egin*



Argakian, Pedro Mari Santos

barik, baina zortedun izarrak barik, zuloak aurkitzen ditu zeruan”. Pozik dago kritikak eta ikusleek nahiko ondo hartu dutela-eta, bai eta bere hasierako ideia ez duelako traizionatu ere. Eta datorren udaberrirako lan berri bat aterako duela aurreratu digu: gidoia idatzita dauka. m

Jakingarri

- Zuzendari, gidoilari eta ekoizle, Pedro Mari Santos.
- Aktoreak: Ander Lipus (Pablo), Itziar Ituño (Elena), Montse Zabalza (Marta), Aiora Sedano (Leire), Alfonso Torregrosa (Koldo).
- Lekutzeak: Bilbo, Plentzia, Gorliz, Getxo, Sopelana eta Mundaka.
- Musika: Fernando Velazquez
- Fotografia: Enrique Urdanoz

Ez galdu > “Uma Ona No Ar”



Helvécio Ratton Brasileko zinema zuzendariak oso film interesgarria eta erakargarria zuzendu du. Film honek sariak lortu ditu aurkeztu duten hainbat zinemalditan. Gidoia Belo Horizonte hirian laurogeigarren hamarkadan sortutako irratirata baten gorabeheretan oinarritzen da. Irrati honek (radio Favela) arrakasta handia lortu zuen, programazio ausarta zuelako eta berezko hizkuntza erabiltzen zuelako. Beraren ospea uhinak baino urrunago heldu zen. Grabazioa Belo Horizonte hirian bertan egin zen eta lortutako diruaren zati bat Radio Favelara helarazi zuten. Helvécio Ratton-ek bere kamera faveletako mundura zuzentzen du, kasu zehatz honetan, irratirata independente batek komunitate bati eskaintzen dion zerbitzua erakusteko. Radio Favelak askatasunaz eta duintasunaz hitz egiten du.

Erradiografia > Flyin' Freak



Argazkian, taldeko kideak

It's the time lehen diskoa kaleratu dute Oihuka disketxeagaz, eta zuzenekoak irailtik aurrera

Nondik dator izena: Sortu zuten lehen abestiagaz harremana zuelako jarri zioten *Flyin' Freak* edo amets hegalaria izena diskoari. Hala ere, German taldekideak esan digunez, ez dute gura jendeak Flying Free abestiagaz lotzea, euren musikak ez duelako zerikusirik estilo horregaz. Ez dute gura jendeak Idibihotzen antza hartzea, beste ikuspuntu bat daukate-eta, nazioartera begira. **Noiz hasi ziren:** “2002an Idibihotz taldeko Alvaro, Gorka eta Mikeli, Nonaezean taldeko gitarra Pedrogaz, proiektu paralelo bat sortzea otu zitzaizen, eta gero ni sartu nintzen, teklista moduan”, diosku Germanek. **Taldeko kideak:** Alvaro Alonso

(bateria), Pedro Hermosilla *El abuelo* (gitarra), Gorka Bizar (baxua), Mikel Bizar (abeslaria) eta German Ulacia (teklatura). **Gustukoa dute:** Heavy-metal melodikoa jorratzen dute. Gogoko dituzten taldeen artean daude: Helloween Edguy eta Symphony X. **Eginiko diskoak:** *It's the time* da euren lehenengoa. Oihuka disketxeagaz kaleratu dute, eta Cesar Ibarretxe tenikariagaz grabatu. Ingeleseko 11 kantak osatzen dute. **Euskal musikaren egoe-ra:** “Lehen Euskal Herrian musikatik bizitzetik ez bazegoen, onain pinateria dela eta are gaitzagoa da. Baina saiatzen jarraitu behar dugu”. m

Harremanetarako: www.idibihotz.com

diskoak

Winning days
The vines
Capitol



Highly Evolved lehenengo diskoa, sarri gorapitua, kaleratu zutenean, Nirvana-ren oinordekoak zirela esan zuten batzuek; egia esan, Mr. Hyde gitarrero horren ostean guztiz poperoa zen Jekyll Doktore bat zetorren jarraian. Bigarren lan honetan Australiako taldeak ez dio aurrekoaren mailari eutsi, baina Nirvana Radiohead-ekin batu daitekeela frogatu du berriro. Eta sormenagaz gainera.

Ha sido éste
Los acusicas
Discos Homigonera



Ironiaz eta txantxaz gainezka, Joaquín Rodríguez-ek (Los Nikis taldeko baxu-jole eta musikagile ohia) eta Mauro Canut-ek (Los Vegetales eta Intronautas taldeetan ibilitakoa) 80. hamarkada alai izan zela gogorarazten digute; batez ere, gaur egungo garaiekin alderatuz. Bikote madrildarraren lehenengo diskoa jaia da bete-betean, eta abestien hitzak, berriz, oso dibertigarriak.


Hombre mate hombre
Barricada
Dro East West



Hogei urtez gure artean egon ostean, Barricadak ez dio inori ziria sartzen. Izen horren atzean eskarmentua daukan rock talde bat dago, eta diskoak disko lan koherente eta sendoa egitera derrigortuta dago. Beraz, Hombre mate hombre disko berrian Txantreako taldearen izaerak borrokalaria izaten jarraitzen du, hitzetan ohi baino erasotzaileagoa eta erradikalagoa.

Diskoa >

Igor Arzuaga



Igor Arzuaga kantugile laudiotarrak bere bigarren lana plazaratu berri du, *Smog*. 2002an kaleratu zuen bakarkako lehen

lana, *Argi izpi bat* Gaztelupeko Hotsak disketxeagaz, eta oraingoan ere disketxe berberagaz merkaturatu du bigarren diskoa. Javi Cepeda gitarragaz, Aritza Ortuzar baterian eta Txubio Fernandez kontrabaxu jotzailea ditu lagun Arzuagak *Smog* diskoan. Gasteizko “El Canton de la Soledad” estudioan grabatu dute, Juanan Ros teknikariaren laguntzaz. Giro intimistari eutsi dio oraingoan ere arabarrak, baina bigarren hau rockeroagoa da bere ustean.

Jaialdia >

Blues-a Getxon

Ekainaren 11tik 13ra bitartean Nazioarteko XVI. Blues jaialdia egingo da Getxon. Algortako Portu Zaharrean lekutuko da jaialdia eta bluesaren inguruan azken aldiari sortu diren estiloen ordezkarri esanguratsuak bertaratu dira. Lehen egunean Victor Aneirosek eta bere taldeak emango diote hasiera jaialdiari; ondoren Eric Sardinasen doinuak izango dira entzugai. Hilaren 12an, Bobby Rush ezagunaren blues-soul erritmoek jarriko diote doinua gauari. Bukatzeko, domekan, Deborah Colemanen ahots eta gitaren eskutik etorriko da jaialdiaren amaiera. Kontzertu guztiak 21:30ean izango dira, eta doan.

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Egunerokoa (XVIII)

Nortasun kontuak (I)

Duela gutxi, Anagrama argitaletxeak Hanif Kureishiren liburu bi kaleratu ditu: "El cuerpo" ipuin bilduma eta saio autobiografikoekin osaturiko "Soñar y contar". Bizitza osoa idazketari loturik igaro badu ere (Ingalaterran ospe handia du idazle eta batez ere antzerki gidolari gisa), orain dela urte bi egin zen Europan ezagun bere nobela batean oinarrituriko "Intimacy" filmak lortu zuen arrakastagatik. Hura ez zen zazpigarren artearekin egiten zuen lehen kolaborazioa; hain zuzen, bereak ditugu "Mi hermosa lavandería" zein "Londres me mata" filmetako gidoiak. Aipaturiko lanak ezaugarri askotan datoz bat: nolabait, etorkinek gizarte berri batean (kasu honetan, Ingalaterrako gizartean) integratzeko dituzten arazoak, kultura ezberdintasunek familiaren izaeran eragiten dituzten gatazkak, arrazakeria... Kureishik ondo daki zertaz ari den, nobeletan deskribatzen dituen egoerak bere azalean bizitzeko aukera izan baitu. Aita pakistandarra zuen; ama, berriz, ingelesa. Bera Londresen jaio zen arren, azaleko koloreak jaioterri-kide zituen horiengandik bereizten zuen. Thatcherren garaian, artean nerabe inozo eta txori-burua besterik ez zela, gorriak pasa zituen idazleak "pakistandarra" izateagatik. Udan, Pakistanen, aitaren familia bisitatzerantz joaten zenean, ez zuten begi onez ikusten "ingelesa" zelako. Kakotx artean jarri ditut "ingeles" eta "pakistandar" berbak, Kureishiren nahia errespetatuz. Bere nortasunaren parte diren bi herrialdeek arrotzat hartzen dutenean, nola defini dezake batek bere burua? 4

Mendekuaren harira

Karlos Linazasorok ipuinez osaturiko liburuak kaleratu du Erein argitaletxearekin

Ipuinak, antzerki lanak, poesiak, aforismoak... Denetarik pixka bat idatzi du Karlos Linazasorok, baina beti labur, beti zorrotz, esaerak dioenez, ontzi txikietan gordetzen dira-eta lurrinik goxoena. Goxotasuna aipatu dugu, baina nekez erabil genezake halako adjektiborik Tolosakoak Erein argitaletxearekin kaleratu duen azken lana definitzeko. Izan ere, *Mendeku graziaz*-en bildutako ipuinak goxotasunetik baino gehiago mingostasunetik gertu daude. Egileak berak adierazi duen legez, "nire ipuinak mendekuaren inguruak dira denak, baina saiatu naiz mendeku sotilak egiten. Ez dago biolentzia-

«Mendekua egiten duenak aski arrazoi indartsuak izaten ditu»

rik edo trukulentziarik. Ipuin-bukaera guztiak irekita gelditzen dira; askotan egiten dudana da. Hala ere, pista batzuk ematen dira».

Linazasororen liburuak ipuin batzuek, hiru-lauk, orain ikusi dute argia lehenengo aldiz, baina orain dela bost bat urte idatzitakoak dira. Besteak lehendik argitaratutakoak dira, modu batera edo




Argazkian, Karlos Linazasoro

bestera, eta oraingo ediziorako, autoreak berriro idatzi ditu, neurri batean. Liburuak laugarren alea, *Punta Araucaria* delakoa, Ignacio Aldecoa saria irabazitakoa da.


"Liburu hau generoko bilduma da. Genero beltz eta poliziakoaren ezaugarriak dituzte ipuinek. Bere arauak ditu genero horrek eta errespetatu egin behar dira, eta, jakina, intriga lortu beharra dago. Saiatu naiz irakurlea mendekua egiten duenaren alde jartzen, eta ez biktimaren alde. Erakutsi nahi dut mendekua egiten duenak aski arrazoi indartsuak izan dituela". m

liburuak



Gerrateko ogia
Deborah Ellis
Ibaizabal

Parvana Afganistango hiriburu bizi den 11 urteko neska toa da. Aita atxilotzen dutenean -talibanen gobernuaren garaian-, familiak premiazko irtenbidea bilatuko du: neska izateagatik, Parvanak ezin du dirua irabazi, eta horregatik, mutil bihurtu beharko du. Liburu gogorra eta erreala.



Gerrako pilotu
Antoine Saint-Exupéry
Alberdania & Elkar

Frantziako Arras hiriarain gainerik hegan egiteak ez dauka ezer berezirik; alabaina, hegaldia gerra garaian gertatzen bada, orduan kontua bestelakoa da. Saint-Exupéry-k gerrako pilotuen artean jasotako esperientzia gizatasunez betean ikusten du Gizonaren eta Frantziaren salbazioa.

Astekaria >

Kaleidos barikuero kalean

Euskal Herriko kolore eta irudi askoko kultur eta aisialdirako eskaintza biltzea helburu

"Euskal Herri osoari zuzendutako gida", horrela definitu du Kaleidos-eko koordinatzaile Amaia Ereñagak astekaria. Gida gehienak hiribuetan argitaratzen direla eta nahiko lokalak direlako ustea dute Kaleidos-eko arduradunek, eta horregatik jaio da barikuero kaleratzen den astekaria, Euskal Herri osoko txoko guztietako informazioa batzeko helburuagaz, eta era berean, informazio hori Euskal Herri osoari helarazteko asmoagaz.

Gara egunkariak eta Baigorri aldizkariak Euskal Herriko kultur eta aisialdirako eskaintza batuko zuen astekaria sortzeko ideia

«Informazio asko modu grafikoan emanda, agenda indartsua, tokiko informazioagaz...»

pasadan udan garatu bazuten ere, iragan maiatzaren 21ean ikusi zuen lehenengoz plaza Kaleidos-ek. 64 orrialdeko astekariak aldizkari formatua dauka, koloreetan, eta elebiduna da. Gara-ren irakurleek 60 zentimogatik eskuratuko dute egunkariagaz batera, bestela 1,60 euro balio du. Amaia Ereñagak azpimarratu duenez, "informazio asko sartzen dugu, modu oso grafikoan. Gero, erreportajeak ere badira eta agenda oso indartsua osatu dugu, tokiko ekitaldien berri eman nahi



Amaia Ereñaga, Kaleidos-eko zuzendaria

dugu, herrietako jarduerak aipatuz, eta horrez gain, telebistako programazio zabala eskaintzen dugu, tokiko irrati eta telebisten eskaintzari berriztatuz ere".

Aisialdiari eta kulturari lotutako astekariak 30.000 aleko tirada dauka. Oro har, Kaleidosek Euskal Herriko kolore eta irudi ezberdin guztiak batzeko asmoa dakar. m

Berria >

Irakurle gehiago

Aurreko UKn komunikabideen audientziak neurtzen dituen Espainiako CIES enpresak 2003an emandako hainbat daturen berri eman genizuen. Enpresa berak 2004ko lehen zatiko datuak kaleratu ditu orain dela gutxi, eta aurrekoan Berriak Bizkaian 15.000 irakurle zituela esan bagenizuen, berri pozgarriagoa plazaratu du CIESek: irakurle kopurua 9.000 pertsona hazi da, eta orain 24.000 irakurle ditu Bizkaian. Guztira, Hego Euskal Herrian 65.000 irakurle dauzka Berriak, eta horrela banatzen dira lurraldeka: Gipuzkoan 29.000, Bizkaian 24.000, Nafarroan 9.000 eta Araban 3.000. Bizkaian irakurleen kopurua %60 egin du gora, Nafarroan eta Araban iaizko irakurle kopuru berberak jarraitzen du aurten ere, eta Gipuzkoan, ostera, 2.000 irakurle galdu ditu. CIESek 4.000 inkesta inguru egin zituen Hego Euskal Herrian datuok ondorioztatzeko.



aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

94 491 13 37

UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba
Ameti 6, 4. solairua 6. bullegia / 48900 Getxo
uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratiak	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Koska Irratia	104.1
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0
Gorliz Irratia	107.8

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estazioba

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50
merkeago
garbituko dizugu
autoa!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

irabazi UKrekin

MUGI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

x Tendinitis Esgintzeak
x Erreuma x Kiroleko

deitzen duenak
masaje bat debalde
irabaziko du!!

94 491 13 37
aldizkaria@euskalnet.net

Mendieta 2, SOPELA 17 67

Kafe Antzokia
Sarrerak
debalde!

ekainak 17 osteguna:
LONE?ARK 4 sarrera

94 49113 37

Kafe Antzokiak
antolatutako ekitaldietarako sarrerak lor ditzakezu.
UK-ra deitu eta kitto.

[sarean]

Imaginazioa bai?

AEBetako webgune batean hainbat alorretarako ideia berritzaileak plazaratu daitezke

Denok izan dugu inoiz ideia bitxi bat, gaia edozein dela ere. Orain arte, gure ideia guk geuk ezin bagenuen gauzatu, leku gutxitara bidal genezakeen. Politikari bati idatzi? Komunikabide bati "eskutitz irekia" bidali? Denbora galtze hutsa dirudite halakoek, gehienetan ez digute eta kasurik ere egingo. Gauza da, Interneten bidez bide berriak zabaldu zaizkigula halako kasuetarako ere: Internetek eskaintzen duen horizontaltasunari esker (denok gara orain aldi berean igorle eta entzule) *Shouldexist.com* webgune dotorea sortu da.

Webgune honetan munduko ideiarik bitxiak aurkituko ditugu, denak luze eta argi azalduta: konektatzen diren autobusak, abesti ezezagunen tituluak aurkitzeko sistema, kotxeak berez ibiltzeko modua... Berri-berria den bitartean, edozein ideiak balio du.

webgida

LAZARRAGAREN
ESKUIZKRIBUA

Gure ideia webgune honetan plazaratze hutsagatik ez dirudi aurrera aterako denik, baina behintzat, gainontzeko erabiltzaileekin eztabaidatzeko eta balio duen ala ez ikusteko lehenengo pausutxo eman dezakegu.

Balitzko ideiak ez ezik egia bihurturiko batzuk ere aurkituko ditugu *Shouldexist.com*-en. Azken finean, aurkezten direnak "zoroen" asmakariak izango dira, baina inoiz, zoroen buruetatik etorri zaizkigu aurrerapausuak ere, ez? ^m

www.shouldexist.com



Sarean aurkitu ditugu > Katuak



Ibon Koteron > musikaria

“Tradizioa bizirik dagoen zerbait da, eta aldaketan datza”



Azken urteotako euskal albokajolerik ezagunena dugu Koteron

Ibon Koteron 38 urteko musikari bilbotarrak bigarren diskoa kaleratu berri du: Aire. Nazioarteko zenbait musikariren laguntza eduki du Koteronek albokan oinarritutako lan honetan, bai eta Kepa Junkera lagun minarena. Izan ere, Koteronek Junkeragaz batera kaleratu zuen lehen diskoa, Leonen Orroak. Ondoko ber baldian, musika, tradizioa eta, bereziki, alboka eduki ditugu aipatzekoak.

—Zenbat tresna dakizu jotzen?

—Ondo jo, bi: alboka eta dultzaina edo nafar gaita. Eta nola edo hala, txistua, txirula, zerra musikala, zeharkako flauta eta tarota, Kataluniako musika tresna bat.

—Kaleratu berri duzun *Aire* diskoan, alboka nazioarteko musikari, tresna eta doinuak elkartu dituzu. Euskal musikan azken boladan modan dagoen zeozer da?

—Ez, nik ez nuke esango moda denik. Alboka oso tresna berezia da eta gure asmoa munduko beste tresna berezi batzuekin

buztartzea izan da. Sardiniako soinu-tresnak atera ditugu, dagoeneko desagertuta zeuden Finlandiakoak... Tresna arraroak dira, eta beraz, badaukate zer ikusirik arraroa den albokarekin.

—Muga asko ditu albokak?

—Ez da pianoa, argi dago. Baina tira, tresna guztiek daukate mugak. Horiak gaintzean dago xarma. Disko honetan alboka mota bat baino gehiago erabili dugu: tradizionala, estandarra —orain 20 urtetik erabiltzen dena—, eta moldatutako beste batzuk. Al-

bokagintzan ere aurrerapenak daude, eta orain badira nota gehiago eta doinu desberdinak eman ditzaketen albokak.

—Zein musika mota jo daiteke albokagaz?

—Norberak nahi duena. Tradizioz, jota, porrusalda eta martxa jotzeko baino ez da erabili alboka, baina uste dut ez dela mugarik ipini hehar eta norberaren gustokoa dena egin behar dela. Guk geuk, diskoan, kantu mota bat baino gehiago egin dugu. Alde horretatik, mugak musikariarengan daude, ez tresnan.

«Alboka ez da pianoa, argi dago. Baina xarma mugak gaintzean dago»

—Alboka ikastea oso gatxa ei da...

—Hori mito hutsa da, albokari kalte handia egin diona. Alboka ikasteko zailtasunak beste edozein musika-tresna jotzen ikastekoak bezalakoak dira. Alboka jotzeko *arnasari buelta ematea* deritzon teknika erabili behar da, eta albokariak, euren burueri garrantzia emateko-edo, oso zailtzat ageri izan dute hori. Gero, jendeak mitologiari jarritu dio, baina gaur erraz ikas daiteke alboka jotzen.

—Euskal musika tradizionalak, irauteko, bide berriei ekin beharko die derrigorez?

—Tradizioa, hain zuzen, horixe da eta: berrikuntza! Tradizioa bizirik dagoen zerbait da, eta aldaketan datza. Bestea, gauzak lehen egiten ziren modu berean gorde nahi izatea beti, museogintza da, eta gaur egun oso jende gutxi joaten da museoetara. Jarrera horren defendatzaileak, hain zuzen, folkloristak dira. Baina benetan folklore egiten duen herria ez da horrelako aurreiritzietan jausten. Musikari zaharrek ere ez diete inoiz muzin egin aurrerapen teknikoei —ez eta kulturaleri, bide batez esateko—, eta ontzat hartu dituzte, hobeto jotzeko balio izan den heinean. ^m

Berangoko **Maria Begoña Izagirre**

“Eskolara asko ez gara yon, ze harek ez dire ixen ez andereñok eta ez maixuk eta ez ezer, harek ixen dire salbaje batzuk”



Argazkian, Maria Begoña Izagirre bere etxeko sueten

Maria Begoña Izagirrek 73 urte dauka eta Berangoko Gorrondatxe bidean bizi da. Egunotan inguruan dauden etxegintza beharrak direla eta, alabaren etxean hartu gintuen. Bertan, ilobak zebiltzan olgetan, eta, hainbat konturen artean, horiek ere gure berbetaren hizpide izan ziren.

—Iloben moduan jolasten zenuen zuk ere?

—Honen modun ez, ze ez du euki... honen deke dana jolastuteko. Nire gizonak esaten dost gabonatan jalea ekarteiotzela; ha ixen zan euren ha, ez zan egon besterik eta; eukiteuena klaro ze bestek tiragoma bat igual aitek egiña goma biez ta listo. Orain bixio dau lar. Lehen ezebez ta oiñ lar. Ordu eite zan... abarketa bategaz igual bat baltza ta beste azula edo, ta hala, imiñi te aurrera harik eta apurtu arten. Mixeri, baia danak igual, eh? Danak bardin; ta poxik eote gintzesen, ez gendun pentsaten holantxe baño ez dala beste biximodu.

—Euskaraz egiten duzu eurekaz?

Alaba ikastolara yoan da ta ikastolara yonez geron bakixu beti iten da euskera gure baño

hobeau. Burle eiten doskue ez dakigule euskera, bueno bale baia ulertuten gara ta aurrera kontuk.

Guk beti ein dotzeu umeri euskera, baie geure euskera, gero ikastolara yoan direnen han ein dere ikesi beste modu batera ta aurrera kontuk.

—Eskolara joan zinen?

—Eskolara asko ez gara yon ze harek ez dire ixen ez andereñok eta ez maixuk eta ez ezer, harek ixen dire salbaje batzuk; yo yo eta yo. Ni akordata naz noz yon nintzen akabuko egunen. “A ver, Begoña Izagirre etorri te imiñi holan esku”, “nik ez”, ta agarra eusten biren arten ta yo ieusten. “Ez nozue yoko gehiau”. Ostabere pasa ziren egun bi edo hiru eta deituten deust, banoa ta, komunak garbituten yoan behar dotela,

“ni enaz etorri hona komunak garbituteko, garbituixu zeuk gure badozuz” ta etor ziren bi ta “ez ukutu ni, eh? oiñarten ez dot esan ezer etzen baia oraingoan esango dot, eh?”, zabaldu neun ate eta etzera; eta enintzen yoan gehiau.

“Lobek deke dana jolastuteko. Orain bixio dau lar. Lehen ezebez ta oiñ lar”


—Eta beharrean egin zenuen?

—Etzeko beharrak, betiko kontuak eiten ze hiru neba euki dodaz ta etze bere goberna ein behar da. Kanpon ez dot egin beharrik; nahiko euki dot haikaz mutillekaz. Al-kondarak plantza, ta ordun almidoiagaz-ta eiten ziren, ez oingo modun; horrek beharra emoten de. Aite ta ama osten haurek bai, solon. Ni jatordukin, bazkaritxu ta holantze...

—Alde handia dago lehen jaten zena eta orain jaten denaren artean?

—Orain nik pentsaten dot ze gauza gehiau yaten dala. Edozein sasoi ten yaten dozu lebatza, oilaskoak... ta horrek gauzak. Ordun bai eoten ziren baia ez egunen-egunen. Ordun txarri hiltzen gendun etzen, txorixok, permillak... horrek gauzak yaten ziren etzen. Esnek, indabak, porrusalde, edo patata be makailoaz, tomatada arrautzakaz, edo txorixo frijute taloaz; urdaie etzen koixu ta gero zatitu te yan. Ez da egon orain dekugun bixio, ze diru bere ez da orain eiten dan modun korridu diru; orain asko ez da egongo diru baia ordun baño gehiau bai, ixen zan pobreau dana; ganaduk eta gauzak bai etzen baia harek bere pentzuk eta behar... Oiñ kanpon eiten da behar ta diru dator hilen-hilen. m

Esakere “Langille txarrak atxur onik ez”



Ezin lei enbor bat ebagi labaneaz, eta ezin da tortilla bat ondo egin taloburni baten: tresna edo herraminte ona, egoki, behar da lan bakotzarako, halan da, baia kontuz! Tresneri ona aukite ez da dana! Langillek ganora apur bet ez badeko, agur! Alperrik da axkorarik, sartenik, atxurrik edo gure dan tresnarik onena aukite, beharra egin behar daun langille txarra bada!

(G. Garatek baturiko esakera dozue hau. Beran “Atsotitzak” beharran topako dozue).

Gorka Vázquez

Gurberbake **1**

ZELAN ESAN

Zelan erakutsi interesa, esperantze eta abar.

Testua: **Xabi Bilbao**

Pasa dan edo pasa leiten zozeren aurren, zelan erakutsi interesa

Interesa deko horrek.

Nik interesa dekot horretan.

Asko interésaten dat (dast) hori.

Jakin/ikusi gúre dot hori... Jakin / ikusi gúre nauke hori...

Zelan erakutsi interesik ez daule

Horrek ezteko interesik.

Nik ezteko (bápere) interesik horretan.

Niri ezast bápere interésaten hori.

Abrosu éiten naz ni horrégaz / Abrosu éingo nestike ni horrégaz.

Abrosúte nau ni horrégaz. Enei aguánta géhiauirik!

Kantsagarri zer da hori, ba! Samaráiño dekost! (Samaraino nauka)

Zelan erakutsi esperantze

ía prest daun partidureko, ezpabere galdute gauz.

óndiño esperántze dekot prest egon dáiten partidureko.

Partidureko prest égongo dálakon nau.

Partidureko prest égongo bálestike... hori da gure esperántze.

Zelan erakutsi ardure edo bildurre

Ezkauz (ez gauz) lasai, ezta pasa íxau ezer ezta?

Ezta normala hau, étorko dire laster ezta?

Eztáit, bildur apur bet sartu daust horrek!

Bildurtúte / ikératute gauz gaue ein dánetik hóna.

I

I aki
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345
Algorta

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZA -
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

ALBEkumeak

Mikro aurrean lotsa barik

Nork esaten zuen Negurin ez zela euskaraz egiten? Bai, jauna. Eta bertsotan? Dotore, gainera! Hementxe daukagu adibidea: Gobela Ikastola. Bada, oraingoan Gobelara etorri gara, Negurin daukagun ikastola dotore honetara, eta 6. mailako ikasleak zain ditugu, ea zer kontatzen diguten!

Testua: **Nahikari Ayo** / Argazkia: **A. Mentxaka**

Gelara sartu nintzen lehen egunean ikasle guztiak isil-isilik zeuden, burua behera begira zutela. Ez dakit beldur ziren, lotsa edo zer arrai! Beldur edo lotsa hori arin bai arin joan zitzaizkien; orain, baina, isildu ere dira egiten!

Euskal Egunean euren dohaiak erakutsi zituzten oholza gainean. Tente-tente mikro aurrean, ondo ahoskatzen... Oporrei buruzko bi koplak abestu behar izan zituzten eta agur bat zortziko txikian. Hilabete lehenago hasi ginen bertsoak ganoraz prestatzen, doinuak lantzen... eta, askotan gertatu ohi den bezala, lanak bere fruituak eman zituen maiatzaren 13an Andra Mariko frontoian, bai ederto eman ere! Bertso-saio zoragarria!



Gobela ikastolako 6. mailako bertsolaritxo emankorrak

Ikastetxe guztietan bezala, hemen ere era askotako ikasleak ditugu: rockeroen antzera abesten dutenak, papera aurpegian jartzen dutenak ez ikusteko, primeran abesten dutenak... Ez dugu ezeren faltarik

Gobela Ikastolan. Beraiei galdetuta ia gustatzen zaien bertsolaritza, baietzkoa ematen dute. Bertsoak entzutea baino, nahiago izaten dute euren bertsoak egitea. Beraz, badaukizue gaztetxuok, ez galdu bertsoen tren!

«Bertsoak entzutea baino, nahiago izaten dute euren bertsoak egitea.»

ALBEko gaztetxoak



Ilargi Zuazua

TXIKITIK HANDIRA

Lehenengo puntua emanda

Sarritan egiten da Sopelan bertsotan, nire herria ez da inoz lotzen lotan. Nahiz eta kontrakoa dineuden askotan, ondo geldituko da azkenean hortan.

Lau oinak emanda

Honen zain egon nintzen pila bat **denbora**, eta azkenean be heldu jat **ondora**. Espero dot inoz be joatea **kanpora**, eta bertsolaritzan egitea **gora**.

Azken puntua emanda

Hona heltzeko probatu ditut hainbat eta hainbat era, baina nahiz eta ezer ez lortu bertsotan beti aurrera. Bermeoraino ere joan nintzen ezagunekin batera, **eta azkenean lortu egin dut joatea finalera**.

INGELESEK

ingelesez irakurtzen dituzte eguneko berriak

A Smelly Flower From a Refined Family

By CAROL KAESUK YOON

After more than 180 years of puzzling, scientists say they have solved the mystery of the evolutionary origins of the plant that produces the biggest flower on earth. Researchers now say the bizarre rafflesia — whose blossoms can measure nearly one meter across and were described by the Swedish explorer Eric Myrberg as having “a penetrating smell more repulsive than any buffalo carcass in an advanced state of decomposition” — actually sprang from the genus group of plants that includes poinsettias, violets, and passionflowers. “It was a long time ago, but I think it was in the late 19th century,” says a researcher from the University of Queensland, Australia, who was the lead author of the paper, published online last month in The Proceedings of the National Academy of Sciences. “Some people have thought it was related to some other big smelly flowers.” Rafflesia (pronounced ra-FLEE-shuh) are nothing if not strange. These plants not only make large and rank-smelling flowers, but they are also parasites. So unlike nearly every other plant, they have no leaves and no green tissue for carrying out photosynthesis. Instead, in their home in the rainforests of Southeast Asia, rafflesias live by tapping into the roots of other plants through their stems.

► Cuatro personas fueron detenidas tras nueve horas de disturbios

AGENCIAS. SYDNEY

Las autoridades australianas pidieron ayer calma a la población aborigen tras la violencia del fin de semana en Sydney, que se saldó con guerra de medio centenar de policías heridos y al menos cuatro detenciones. El lugar de los hechos, el barrio de Redfern, con una importante población aborigen, amaneció ayer con enormes banderas pintadas en las paredes, símbolo de los derechos de los indígenas australianos, mientras algunos agentes del orden que duró nueve horas. **Condolencias** Thomas Hickey, de 17 años, murió el domingo a consecuencia de la herida producida por una vara metálica que, supuestamente, se clavó el sábado por la noche en una persecución con la Policía por; también al parecer, montar en bicicleta sin casco protector. El jefe del Gobierno del Estado de Nueva Gales del Sur, Chris Minchin, expresó sus condolencias por la muerte de Hickey.

FRANTSESEK

frantsesez irakurtzen dituzte eguneko berriak

de l'histoire du XX^e siècle

BERLIN de notre envoyé spécial Trois auteurs de fond du cinéma d'auteur international se sont joints, dans la dernière ligne droite, de la compétition berlinoise, au peloton: Ken Loach (66 ans), Theo Angelopoulos (69 ans) et Eric Rohmer (84 ans). Le premier, fidèle à une méthode désormais éprouvée, marie l'actualité sociale au romanesque dans *Le Fond Kios*, dont le sujet tourne autour d'une alliance problématique localisée à Glasgow. Celle de Kasim, un jeune Pakistanais issu d'une famille musulmane distinguée, et d'une jeune...

EUSKALDUNOK ERE EUSKARAZ IRAKURTZEN DITUGU EGUNEKO BERRIAK



Egin zaitez harpidedun:
943 30 43 45
harpidetza@berria.info

HARPIDEDUNEN ABANTAILAK

1. Kioskoko prezioa baino %9 merkeago
2. Banaketa doan: etxean, lantokian...
3. Harpidedunaren Kioskoan zozketak eta opariak
4. Promozioetan abantailak

Euskaldunok behar dugun **berria**



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Vichyssoise

G ainean ditugun tenperatura beroei aurre egiteko plater hotz bat beti izaten da lagungarria. Nik *vichyssoisea* proposatzen dizuet. Hasteko ipini sutan gurina eta oliba olio apur bat. Ondo txikitutako porrua gehitu gero eta bigundu arte su ahulean eduki. Ondoren patata bat dadotan zatituta, litro erdi esne eta beste horrenbeste okela salda bota (ez badaukagu, ura eta starluxa erabili) eta irakin arte eduki sutan. Gatza eta pipermina gustura bota. Guztia eginda dagoenean txinotik eta irabia-gailutik pasatu salda fina lortu arte. Kitto! Plater honen aldaerak ere oso erraz egin daitezke patata erabili barik, esa-terako, kalabaza edota erremolatxa erabiliz. ^m

osagaiak (lau lagunentzat)

- dozena bat porru • patata bat • litro erdi esne • litro erdi salda •
- gatza • pipermin zuria •



itsaso arana / jolastoki-koa

Txakolina

M endetan zehar Bizkaia mahasti handia izan da. Adibidez, Portugaleteko sortze aktan honako pribilegioa eman zion Juan I erregeak herriari: kanpoko untziek ezin zuten herrian beste leku batzuetako ardorik deskargatu, behintzat herrian bertan egindako horrenbeste txakolin untziratzen ez bazuten.

Bizkaiko Txakolina jatorrizko izendapena Bakio eta Lekeitioko kosta-mahastiak hartzen ditu: badira Enkarterrietan ere mahastiak, Balmasedan, Güeñesen, Galdamesen, Zallan eta batzuk Orduña aldean. Bodegak aipatu ditugun inguru hauetan daude.

Batez ere bertokoak diren mahats mota bi erabiltzen dira txakolina egiteko: hodarrabi zuria eta hondarrabi beltza. Oso mahats usaintsuak dira biak. *Folle blanche* mahats mota ere onartzen du jatorri izendapen honetaz arduratzen den Kontseiluak. Mahats-biltzea udazkenaren hasieran egiten da, azukrearen eta garratzasunaren arteko oreka egokia den unean.

Ardo hauei dagokionez, ezagunenak zuriak dira. Ardo arinak dira, sikuak eta edaten oso errazak. Graduazioa 9,5 eta 11,5 artekoa edukitzen dute. Txakolin gorria ez da horrenbeste egiten eta ahoan ikutu garratztoa sortzen du; graduazioz zurien parekoa izaten da. Eta azkenik, txakolin beltzak geratzen zaizkigu, hauek dira ezezagunenak eta oso gutxi ekoizten dira. Hauetan bai, nabaria da garratzasuna.

Ardo honen ekoizpenaren parte txiki bat atzerrira saltzen da, beste bat Madril eta Bartzelonan banatzen da, baina gehiena hementxe, Euskal Herrian bertan, saltzen da. ^m

Txomin taberna

Tradizioari eusten **Portu Zaharrean**



Argazkian, Marcos Bretos zerbitzaria

Heldu dira terraza batean zerbait hartzeko gogoia pizten duten udaberriko egun eguzkitsu eta epelak; bada horretarako Portu Zaharreko plaza bezalakorik? Bai, irakurle, Txomin tabernaz gabiltza: txikito bat, mokadutxu bat edo eta freskagarri bat lasai hartzeko leku paregabea. Uda gertu dagoela, pintxoak eta errazioak eskaintzen dituzte egunero. Pintxoak betiko eran prestatutakoak izan ohi dira; errazioen artean, berriz, txorizoa sagardotan, odolostea piperrakaz, tigreak, gazta zatiak, txanpinoiak, pernila eta beste dauzkagu dastatzeko.

Horrez gain, zapatu, domeka eta jaiegunetan, rabak, magurioak, izkirak eta abar ere eskaintzen dituzte. Marcos eta Jone Bretos neba-arrebak dira jaki gozo hauen egile; eta biak halaber, zerbitzari beharrak egiten dituzte, Marcosek barra atzean eta Jonek terrazan.

Baina udan ezezik, neguan ere goza daiteke pintxoek zein etxeko berezitasuna diren rabez. Izan ere, aipatu dugun eskaintza bera daukate neguko asteakabuetan. ^m

TXOMIN TABERNA
Algortako Portu Zaharra
Telefonoa: 606 958 690



amesti 7^{sl}

[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

**KURKUDI
LIBURUDENDA**
Euskarazko
irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea



adituak gara
makailo eta
kazolatxoak
prestatzen

Bilbo-Plentzia errepeidea
Elexalde 9, Barrika - Tlf-94 677 30 09

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO



**ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!**

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



ITXASGANE

prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Ariñuze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

OLATXO
altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREETA T.: 94 464 89 94
Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA T.: 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

<p>URA t</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Gauza berriak arrotzak izaten dira askotan, baina hori ez da askorik luzatzen normalean, zorionez. Azazkalak hortzakaz moztea ez da ona, eta gainera, badakizu; ez al duzu otordu goxoagorik ezagutzen?</p>	<p>OTSOA t</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Zeure aurpegi biak inoiz baino age-riagoan geratzen dabilta; jarrera horregaz ez duzu etekin handirik aterako. Hauskorra zara benetan, <i>Otsoa</i>. Zenbat eta irudi irmoagoa eman, orduan eta hauskorragoa izango zara.</p>	<p>ADARRA t</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Beti bezain haserre bizitzen jarraitzen duzu; irribarre egiteak gauza onak besterik ez dituela ekartzen ez duzu ikasi oraindik. Hala ere, bihotz honekoa zarela behin baino gehiagotan frogatu duzu, baina aurrerantzean ere hala jokatu beharko duzu.</p>
<p>AITZURRA t</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Beti besteen arazoak dituzu hizpide, marmarka ibiltzea gustuko duzu, eta burugogorra zarela ere badakite ingurukoek. Baina ez al daukazu lotsarik, <i>Aitzurra</i>? Marka guztiak hausten zabilta.</p>	<p>HOSTOA t</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Lagunei afaltzeko gonbita egin zeniele eta, erabat txundituta utzi dituzu. Ea hemendik aurrera bide beretik zoazen. Sarea botatzeak ez dizu segurtatzen arrainak harrapatuko dituzula, baina aukera hortxe izango da.</p>	<p>EGUZKIA t</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Zurikerietan ibiltzeko ez duzu zuria ez den beste aurpegiarik behar; makillajeak ez dizu jarrera hori ezkatutuko. <i>Zezenak bezala</i>, zuk ere heldu egiten diozu, itsu-itsuan; adimena erabiltzea ez litzazuke gaizki etorriko.</p>
<p>GARIA t</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Lehenengo egunak beti dira zailak, baina egunerokotasunak ekarriko du argia bidea ganoraz egiteko. "Jan eta lo, beti potolo", esaten dute, baina horrek ez du zuregan eragin handirik; izan ere, argal jarraitzen duzu.</p>	<p>LASTOA t</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Lagunik hoberenak ere batzuetan huts egiten du. Ez hori ahaztu sekula, lagunak alboan gura badituzu. Harrigarria da sukaldean sartu barik ere halako otordu goxoak egitea; eskerrak jatetxeak zabalik dauden.</p>	<p>IRATZEA t</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Albokoan jan behar al duzu? Ez dauka zula halako asmorik? Orduan ez jarri aurpegi hori. Ados, Iratzea? Gehiegitan egiten dituzu lekuz kanpo dauden konparazioak. Hobe zenuke batzuetan isilik geratuko bazina.</p>
<p>META t</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Besteei errua botatzea erraza da, baina horrek ez dizu irtenbiderik ekarriko, zezenari adarretatik heldu behar zaio-eta. Txantxak egitea oso atsegin duzu, baina besteei zuri egi-tean ez ezazu alda irribarra.</p>	<p>HAZIA t</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Behar egitea ez da atsegina, lan astuna egiten denean, behintzat; horregatik, zu zorioneko zara. Animaliak gustuko dituzu, baina bikorekideak ez du txakurrik edo katurik gura etxean.</p>	<p>NEGUA t</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Badatoz udako festak. Gauean ez zarela aterako? Baina lagunek hori sinetsiko dutela uste al duzu, <i>Negua</i>? Izan ere, udaberrian izan duzun martxa arrikutsuagaz jarraitzeko prest zaude.</p>

mungia
OKINdegia



Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".
Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA




KEKO

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATU



Ezker eskuin

1. Industriak eraldatzen dituen gaiak. 2. Jausiak. Letra grekoa. 3. Hartuemanak. 4. Euskal Herri hegoaldeko ibaia. Estimatu handiko zur. 5. Nagoela. Zah., zakur. 6. Nork pluralaren araberako atzizkia. ... Robles, Lapurdiko txiste-kontalaria. Bat. 7. Enea. Bizkaieraz, pikeak. 8. Gauza. Saudi Arabiako hiriburua. Lehen bokala. 9. Zero. Gipuzkeraz, gara. Ardi, hitz elkarketan. 10. Arratseko otordu. Landu, apaindu.

Goitik behera

1. Lehenbizikoa. 2. Ebazpean, deliberoa. Euskal alfabetoko letra madarikatua. 3. Horkoari. Letoniako hiriburua. 4. Iparra-Idéan, esaiozue. Erbioaren sinbolo kimikoa. 5. Ba..., haiei banu. Edateko gogo. 6. Animalia konkordun. Kasik. 7. Kalitua, hila. Oxigenoa. 8. Iodoa. Nafarroako ibilgailuetan. Niri, zuen. 9. Nafarroako herria. Bokala. Radona. Kokoriko jarri.

Soluzioak



asmatu eta irabazi > **bi lagunentzako bazkari bat**



Nor da?

- Guatemalako alaba
- Maya herriaren eskubideen alde behar itzela egindakoa
- 1992an sari garrantzitsu bat eman zioten Suedian

> Aurrekoaren erantzuna: David Bowie

> Irabazlea: **X (Berango)** *

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Argia astekariaren biru hilabeteko barpidetza doan



• 1500. urteko Europako maparen lamina

www.argia.com



Bittor Egurrola

Algortako ikastola, 1970-71

Bere 40. urteurrena ospatzen dabil Algortako San Nikolas ikastola egunotan, eta hain zuzen ere 40 urteren bueltan dabilta goiko argazkian azaltzen diren lagunak, 1961, 1962 eta 1963 urteetan jaiok dira eta. Bidebarrin zegoen ikastolako ikasgela batean aterata dago argazkia. Esan daiteke “Bidebarriko lokalak” Algortako ikastolaren lehen egoitza izan zela, ordura arte leku batetik bestera ibili ziren-eta ikasleak (pisuetan, txaletan...). Garai hartan Bidebarriko ikasleek ekainean “eskola nazionalera” joan behar izaten zuten azterketak gaztelaniaz egitera, artean ikastola legezatu barik zegoen eta.

Dena dela, ez da ahaztu behar 40 urteurrena ospatzera heldu bagara, guraso batzuei esker izan dela. Horregatik eta aurretik inoiz aipatu baditugu ere, egokia da atzera gogora ekartzea ikastolaren sortzaile izan ziren familiak: Agirre Zarate, Aristegi Anduiza, Azkargorta Aretxabala, Garamendi Garate, Garamendi Uribe, Garate Urretxua, Iturriaga Zabala, Rekalde Uriarte, Zeberio Garate eta lehenengo andereñoa izan zen Begoña Abaitua. m

Lehenengo lerroa: Arantza Arana, Aitor Sangroniz, Jabi Ruiz, Iñaki Mongelos, Jokin Elorriaga, Miren Karnele Saitua.

Bigarren lerroa: Irune Manzano, Idoia Amezaga, Miren Kareaga, Itziar Laka, Edurne Txurruka, Begoña Laka, Nagore Iriondo, Ibone Amezaga.

Hirugarren lerroa: Marga Sangroniz, Irene Montano (GB), Miriam Arrutia, Inma Infiesta, Xabier Amezaga, Koldo Txurruka, Begoña Galdeano.

Laugarren lerroa: Kerman Elortegi, Jaime Aurre, Miriam Ruiz, Roge Mentxaka (GB), Xabier Bilbao (?).



gure posta elektronikoko berria

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

KIRMEN URIBE > idazlea

“Jendea onera aldatzen dela uste dut”



Definitu ezazu zeure burua berba bitan bakarrik. Entzuteko prest.

Zein animaliaz zatoz bat? Antzararekin.

Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?

Buruan daukadan eleberria. Hori definitzeko irudia edo abiapuntua portutik ateratzen den itsasontzi bat da.

Eta zein pertsonaia antzeztuko zenuke film batean?

Espartaco. Pelikula historikoak eta galtzailearen irudia gustatzen zaizkit.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Beñat Etxepare, euskaraz idazten ausartu zelako.

Zure jakirik gogokoena. Antxoak arrautzatzatuak. Guk “antxoak pla-pla eginda” esaten dugu.

Aitortu dezakezun bizio bat. Liburuak erostea.

Oporretara joateko lekurik aproposena. Ondarroa eta New York.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Hutsegite guztiak barkatzen ditut. Jendea onera ere aldatzen da.

Zer janzten duzu lo egiteko? Kamiseta bat.

Ezin zaitzke bizi...

Edozein motatako maitasunik gabe: etxekoena, lagun minarena...

Zer gordetzen duzu sakeletan?

Hondartzatik bueltan, hondarra. Txanponak ere, ea kukuak abesten duen...

Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena.

Telebista. Arraroak dira benetan barruan agertzen direnak. Edo bestela, New Yorken ilobarentzat erosi nuen dinosauro baten hagin bat.

Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?

Mundua libre dela, benetan libre. Euskal Herria ere, jakina.

Ohitura txarren bat... Ez daukat maniarik.

...Eta sineskeriaren bat. Ez naiz superstiziosoa.

Zertan gustatuko litzaizuke haragitzea?

Izurde batean, erdi gizakiak direlako baina itsasokoak. Txikitan zaurituta etortzen ziren hondartzara eta guretzat magikoa zen agerpen hori.

Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa? Hegan egitearena.

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?

Osaba hil zenean, orain dela hilabete pare bat.

Zure azken erokeria. Idazle izatea erabakitzea eta idazle izatetik bizitzea. m

LABURREAN— Bilatzea gustatzen zaio, baina are gehiago itsasoan ibiltzea. Literaturan garrantzitsuena begirada dela deritzo: “Guk biok gauza bera ikus dezakegu, baina idazten hasiz gero, desberdin idatziko genuke, seguru. Kontua, nor bere ikuspegi propioa izatea da, munduaren kezkei buruz gogoeta artistikoa egiteko. Horixe da poesia”. Kirmen Uribe (Ondarroa, 1970) Euskal Filologia ikasketak eta Italian Literatura Konparatua ikastaroa eginak ditu. Itzultzaile egin du behar, eta gidoilari ere jardun izan du. *Bar Puerto* ikuskizuna sortu, eta 2002an Espainiako Kritika saria jaso zuen *Bitartean heldu eskutik* liburuarengatik. Poesiatik gazteentzako literaturara egin zuen jauzia iaz, *Garmendia eta zaldun beltza* argitaratu zuenean. Itaunketa honi erantzun zionean, Estoniatik etorri berria zen; idazleen nazioarteko topaketa batzuetan parte hartu du han.

BAPIRUKE

UDALEKU IREKIAK

COLONIAS ABIERTAS

udan ere **euskaraz!!**

NORI ZUZENDUA: 5-12 URTE BITARTEKO UME EUSKALDUNEI

PREZIOA:

1. TXANDA: BAZKIDEEK 37€ / EZ BAZKIDEEK 50€
2. ETA 3. TXANDAK: BAZKIDEEK 75€ / EZ BAZKIDEEK 100€
(PREZIOA TXANDA BAKOITZARI DAGOKIO)

NOIZ:

TXANDA 1: EKAINA 21-25
TXANDA 2: EKAINA 28-UZTAILA 9
TXANDA 3: UZTAILA 12-23

IZENA EMATEKO:

BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA
KARITATE KALEA 1, 10. BULEGOA
48990-ALGORTA
TEL: 944 914 357



Antolatzailea / Organizador:



Laguntzailea / Colaborador:

